

# PERTSEGITZAILEA

Julio Cortázar



Itzulpena: Jon Muñoz







zaldiarri·10

Testua: Julio Cortázar  
Itzulpena: Jon Muñoz  
Hitzaurrea: Harkaitz Cano  
Azala eta pintura: erramun mendibelanda  
Edizio hau: HEA Kultura Elkartea

2019ko abendua

Maketazioa: Gráficas RD  
Inprimaketa: Gráficas RD

HEA Kultura Elkartea.  
[hea.kultura.elkartea@gmail.com](mailto:hea.kultura.elkartea@gmail.com)  
[www.hea.eus](http://www.hea.eus)  
Ea (Bizkaia)

# Pertsegitzailea

Julio Cortázar

ITZULPENA: JON MUÑOZ



## TO BE OR NOT TO BOP

Bigarren Mundu Gerra osteko Europa babesleku aparta izan zen jazz musikari iparramerikarrentzat. Herrialde eskandinaviarrak –bereziki Danimarka– eta mundu frankofonoa –bereziki Paris– diru iturri eta askatasun eremu suertatu ziren haientzat, eta zenbaitek bolada luzeak eman zituzten Frantziako hiriburuan. Izan zen, areago, Kenny Clarke bateria-jotzailea bezala, Parisen bizitzen geratu zenik ere. 50. hamarkadaren hasieran jazza krisian zegoen AEBetan: klub asko itxi egin zituzten eta gero eta nekezagoa zen ongi ordaindutako emanaldiak lortzea. Erantsi horri arrazakeriak zuen indarra. New Yorken, Kansasen eta Chicagon jazz musikariek estimazio handia izan zezaketen afroamerikarren eta gutxiengo zuri baten begi-belarrietan, baina bazterreko musikariak baino ez ziren publiko zabalarentzat. European, aldiz, aitzakiarik gabeko izar peto bilakatu ziren; gazte zein heldu, ez zen jazzaren xarmari men egiten ez zionik. Filosofoek miresten zituzten eta erakundeek saritzen. Ezaguna da, esate baterako, Jean-Paul Sartre eta Juliette Grécok jazzarekiko zuten mira. Jazzlariek irekitasuna eta aintzatespena aurkitu zituzten Parisen, bai eta zigor kode eta araudi moral laxoagoak ere. Miles Davisek bere autobiografian aitortu zuenez, Paris izan zen ezagutu zuen atzerriko lehen hiria eta bidaia hark betirako aldarazi zion gauzei begiratzeko modua: “Maite izan nuen Parisen egotea eta maite izan nuen egin zidaten harrera eta eman zidaten tratua. Parisen ulertu nuen zuri guztiak ez direla berdinak; badaudela aurreiritzirik gabekoak ere”.

Miles Davis eta liburu honetako Johnny Carter inspiratu zuen Charlie Parker saxo-jotzailea urte berean ailegatu ziren Frantziako hiriburura: 1949an. Bi urte beranduago iritsiko zen Julio Cortazar, jazzaren leherraldia bete-betean zegoen garaian. Hogeita hamazazpi urte zeuzkan eta hezurretaraino maitemindu zen Parisekin. Jazz zale amorratua zela, esan gabe doa. Baieztatu liteke, honenbestez, lehen pertsonan ezagututako giro horren eraginpean idatzitako narrazioa dela honakoa, Charlie Parker 1955ean hil baitzen eta ipuina lau urte beranduago argitaratu. Tarte horretan, beboparen eztanda atomikoak free jazzera iristeko



bidea seinalatu zuelarik, betirako aldatu zen jazzaren historia, gaurdaino bere horretan dirauten joko-arauak irauliz eta berriatuz.

“Ni ez naiz ornitologoa, ni txoria naiz”, entzun izan diogu Arantxa Urretabizkaia bere obraren inguruko teorizazio eske joan zaizkionean. Halatsu Charlie Parker ere: Bird goitzenaren jabe, bere omenez bataiatu zuten Birdland Manhattaneko jazz klub ezagunenetako bat. Hil zenean, “BIRD LIVES!” zioten pintadak agertu ziren horretan. Bere soloak espresionismo abstraktuaren lurralderaino eramateko gai, musika jeneroen arteko mugak lausotzeko gauza zen, maisu handiek soilik ahal dezaketen eran. Miles Davis “musikako Picasso” baten, agian ez litzateke gehiegikeria Charlie Parker “musikako Jackson Pollock” izendatzea. Horren lekuko, Parkerren ekarpena Arnold Schönbergen musika atonalarekin parekatzea, edota Igor Stravinskik Charlie Parkerrekiko zuen miresmena ulertzea (eta alderantziz).

“Nire ipuinetako gehienak borondatearekin zerikusirik ez duen zerbaitegatik idatzi ditut, arrazoimenaren gainetik edo azpitik, kanpo indar batek zeharkatutako medium huts bilakatu banintz bezala”, zioen Cortazarrek. Izan zitekeen Johnny Carter protagonistarena ere iruzkina: saxoa jotzen duenean sakoneran irabazi gura du bizitzaren kronologia makurrak luzetara lapurtzen diona. Zein da, hori ez bada, artearen funtzioa? Hasiera batean denboraren igaro azkarraren eta sormenaren edo inspirazioaren ingurukoa dirudi ipuin honek; zoragarria litzateke bere horretan ere. Ordea, izan ala ez izanaren labar sakonak zabalarazten ditu bat-batean gure oinpean. Bizitzaren amildegia hatz punteaz ukitzearen bertigoa sentitzen dugula dirudi orduan, Johnny Carterrek zuzenean jotzen duenean –bere frustraziorako– infinitua ukitu gabe ukitzen duela dirudien ber gisan.

Tranpatia da memoria: *Pertsegitzailea* Charlie Parkerren bizitzan nabarmenki oinarritutako istorio bat zelakoan nengoen ni. Eta hala da. Alabaina, berrirakurketan Johnny Carter saxo-jotzailearen adiskide Brunok duen pisuak harritu nau. Berak kontatzen du lehen pertsona istorioa eta bere tasunak eta keriak, bere adiskidetasun malgu-aldakorra, itsatsita geratzen zaizkio testuari zoko-moko guztietan. Bruno da partitura batera errenditu ezin daitekeen musikaren

ehundurak paperaren gainean jartzeko ahalegin ezinezkoa egiten saiatzen dena. Bruno, atzemanezina dena besarkatzen saiatzen dena. Bruno da lekukoa eta Johnny da protagonista. Bruno da araua eta Johnny salbuespena. Bruno da aukera posibleen katalogoa; Johnny, katalogoz kanpoko piztia. Bruno metronomoa; Johnny erloju-jalea. Bruno errealista; Johnny inkonformista. Bruno da ornitologoa eta Johnny da txoria. Nola Bruno, halaxe Jon Muñoz itzultzailea ere, itzulezina dena itzultzen eta gu lerrorik lerro xarmatzen, nola xarmatu zituzten jazz musikariek paristarrak gerraostean.

Itzulpen oro bariazio den heinean, bariazioen erresuma den jazzaren gaineko testu bat itzultzea baino sormen ariketa ederragorik ezin nezake irudika.

*Harkaitz Cano (2019ko abendua)*



## **PERTSEGITZAILEA**

### **Julio Cortázar**

*CH. P.en oroitzapenez*

*Izan zaitetz leial heriotzaraino*

*Apokalipsia 2:10*

*O make me a mask*

*Dylan Thomas*

Dédéek deitu dit arratsaldean Johnny ondoezik zegoela esanez, eta berehala joan naiz hotelera. Badira egun batzuk Johnny eta Dédéé rue Lagrangeko hotel batean bizi direla, laugarren solairuko gela batean. Aski izan dut gelako atea ikustea Johnny miseriarik gorrienean dagoela konturatzeko; leihoak patio ia beltz batera ematen du, eta arratsaldeko ordu batean argia piztuta eduki behar da, baldin eta egunkaria irakurri nahi bada edo norberaren aurpegia ikusi. Ez du hotzik egiten, baina manta batean bildua aurkitu dut Johnny, alde guztietatik iztupa horixkako puskak askatzen dituen besaulki herdoildu batean ahokatua. Dédéé zahartuta dago, eta soineko gorria oso gaizki gelditzen zaio; lanerako soinekoa da, eszenako argietarakoa; hoteleko gela horretan odolbildu nazkagarri moduko bat bihurtzen da.

—Bruno laguna kiratsa bezain leiala da— esan du Johnnyk agur moduan, belauak altxatuz kokotsa haietan bermatu arte. Dédéek aulki bat luzatu dit eta nik Gauloises pakete bat atera dut. Ron-flasko bat nekarren sakelan, baina

ez dut erakutsi nahi izan gertatzen denaren ideia bat egin arte. Uste dut lanparatxoa zela gehiena ernegatzen zuena, begi erauzia euliz zikindutako haritik zintzilik zeukala. Lanparatxoari behin edo birritan begiratu, eta eskua pantaila gisa jarri ondoren, galdetu diot Dédéeri ea ezin genuen lanparatxoa itzali eta leihoko argiarekin moldatu. Johnnyk aditasun handi arretagabe batez segitzen zien nire hitzei eta nire keinuei, finko begiratu arren zeharo beste zerbaitetan dagoela, beste zerbait dela, ageri duen katu batek bezala. Altxatu da Dédéé azkenean, eta argia itzali du. Geratzen zen horretan —grisaren eta beltzaren arteko nahaste bat— hobeto igarri diogu elkarri. Johnnyk bere esku argal luzeetako bat atera du manta azpitik, eta nik haren azalaren epeltasun biguna sentitu dut. Neskafe batzuk prestatzera zihoala esan du orduan Dédéék. Poztu egin nau gutxienez neskafe-poto bat badaukatela jakiteak. Pertsona batek neskafe-poto bat daukan guztietan konturatzen naiz ez dagoela miseriarik latzenean; pixka batean euts diezaioke oraindik.

—Aspalditxo ez dugula elkar ikusten —esan diot Johnnyri—. Hilabete, gutxienez.

—Denbora zenbatu besterik ez duk egiten hik —erantzun dit umore txarrez—. Lehenengoa, bia, hirua, hogeita bata. Gauza guztiei jartzen diek hik zenbaki bat. Eta neska hau berdina duk. Badakik zergatik dagoen haserre? Saxoa galdu dudalako. Arrazoi dik, azken batean.

—Galdu, nola galdu duk, ordea? —galdetu diot, unean bertan jakinik horixe dela, hain zuzen, Johnnyri ezin galdetu dakiokena.

—*Métro*an —esan du Johnnyk—. Eserlekuaren azpian jarrita neukaan segurantzia handiago baterako. Zoragarria zuan trastea hanken azpian neukala jakinik bidaiatzea, hantxe, seguru-seguru.

Hoteleko eskailera igotzen ari zenean konturatu zen —esan du Dédéék, ahots marrantatu samarrez—. Eta nik eroa bezala atera behar izan nuen *métrokoei*, poliziari abisatzera.

Segidako isilaldiagatik konturatu naiz denbora galdua izan dela. Baina berak ohi duen eran barrez hasi da Johnny, hortzen eta ezpainen atzeagotik zetorren barreaz.

—Gizajoren bat hor ibiliko duk trasteari hotsen bat ateratzeko ahaleginean —esan du—. Sekula izan dudan saxorik okerrenetako bat zuan; ikusten zuan Doc Rodríguezek hura jo zuela, zeharo desitxuratua zegoan arimaren aldetik. Tresna gisa ez zuan berez txarra, baina Rodríguez gai da afinatze hutsarekin Stradivarius bat alferrik galtzeko.

—Eta ezin duk beste bat lortu?

—Horixe jakin nahian ari gara —esan du Dédéék—. Rory Friendek ba omen dauka bat. Baina okerrena da Johnnyren kontratua...

—Kontratua —imitatu du Johnnyk—. Zer da kontratuaren zera hori. Jo egin behar da eta kitto, eta nik ez daukat saxorik ezta saxo bat erosteko dirurik ere, eta mutilak ni bezala daude.

Azken hori ez da egia, eta badakigu hirurok. Inor ez da jadanik ausartzen Johnnyri instrumentu bat mailegatzten, berehala galtzen edo birrintzen duelako. Louis Rollingen saxoa Bordeauxen galdu zuen, Dédéék erosi zuen saxoa hiru puskatan hautsi zuen, zapalduz eta kolpekatuz, Ingalaterran barrena bira bat egiteko kontratatu zutenean. Inork ez daki dagoeneko zenbat instrumentu galdu, bahituran jarri edo hautsi dituen. Eta haietan guztietan jotzen zuen jainko batek bakarrik saxo altu bat nire ustez jo dezakeen bezala, lirei eta flautei uko egin dietela suposatutik.

—Noiz hasiko haiz, Johnny?

—Ez zakiat. Gaur, uste diat, e, Dé?

—Ez, etzi.

—Mundu guztiak dakizki datak, nik izan ezik —ari da purrustaka Johnny, mantarekin belarrietaraino tapatuz—. Zin egingo nukeen gaur gauean zela, eta gaur arratsaldean entsaia-tzera joan beharra zegoela.

—Berdin dio —esan du Dédéék—. Saxorik ez daukaala, horixe duk kontua.

—Berdin diola? Ez dun berdin. Etzi bihar pasata dun, eta bihar gaur baino askoz beranduago dun. Eta gaur bertan orain baino dezentez geroago dun, orain Bruno lagunarekin berriketan ari baikara eta ni askoz hobeto sentituko nindunake

ahaztu ahal izango banintz denboraz eta gauza beroren bat edan.

—Irakiteko zorian zagok ura, itxaron ezak pixka bat.

—Ez nindunan irakinaldiko beroaz ari —esan du Johnnyk. Orduan ron-flaskoa atera dut eta argia piztu bagenu bezala izan da, zeren eta Johnnyk zeharo zabaldu baitu ahoa, liluratuta, eta hortzak distirutzen hasi zaizkio, eta Dédéek ere irribarre egin behar izan du Johnny hain harrituta eta hain pozik ikustean. Rona neskafearekin ez zegoen erabat txarra, eta hirurok askoz hobeto sentitu gara bigarren tragoaren eta zigarro baten ondoren. Ordurako nabaritu dut jadanik Johnny pixkanaka kikiltzen ari zela eta denboraren aipamenak egiten jarraitzen zuela, ezagutzen dudanez gero kezkatuta baitauka gai horrek Johnny. Gizon gutxi ikusi dut denborari dagokion guztiaz hain kezkatuta. Mania bat da, haren maniarik okerrena, hainbeste ditu eta. Baina gutxik euts diezaiketean graziaz hedatzen eta esplikatzen du berak hori. Grabazio baten aurreko entsaioa etorri zait akordura, Cincinnatin, eta hori Parisa etorri baino askoz lehenago zen, berrogeita bederatzian edo berrogeita hamarrean. Johnny sasoi betean zegoen egun haietan, eta soil-soilik berari eta baita ere Miles Davisi entzuterera joan nintzen ni entsaiora. Denek zuten jotzeko gogoia, pozik zeuden, ondo jantzita zebiltzan (kontrastez oroituko naiz, beharbada, horretaz, gaizki-gaizki jantzita eta zikin-zikin dabilelako orain Johnny), gustuz jotzen zuten, inolako ezinegonik gabe, eta hots-teknikariak poz-seinaleak egiten zituen bere leihatilaren atzetik, babuino gogobete bat bezala. Eta une horretantxe, Johnny bere pozean galdua bezala zegoenean, kolpetik jotzeari utzi, eta ez dakit nori ukabilkada bat emanen esan zuen: “Hau bihar jotzen ari naiz”, eta mutilak moztuta gelditu ziren, bizpahiruk konpas batzuetan segitu zuten, frenatzen berandutzen den tren bat bezala, eta Johnnyk kopeta jotzen zuen eta errepikatzen zuen: “Hau bihar jo diat jadanik, izugarria da, Miles, hau bihar jo diat jadanik”, eta ezin zuten horretatik atera gizona, eta harrezkero dena gaizki ibili zen, Johnnyk gogorik gabe eta alde egiteko irrikaz jotzen zuen (berriz ere drogatzera, esan zuen hots-teknikariak amorruren amorruruz), eta Johnny irteten ikusi nuenean, zabuka eta aurpegia hauts-kolorekoa, ea horrek luzaroan iraungo ote zuen oraindik galdetu nion neure buruari.

—Bernard doktoreari deituko diodala uste dut —esan du Dédéek, Johnnyri zeharka begiratzuz, zurrupa txikitan hantxe bere rona edaten ari baita—. Sukarra duk, eta ez duk ezer jaten.

—Bernard doktorea ergel triste bat dun— esan du Johnnyk, bere edalontzia miatzkatuz—. Aspirinak emango zizkidan, eta gero esango din izugarri gustatzen zaiola jazza, adibidez Ray Noble. Konturatzen haiz, Bruno. Saxoa baneuka, lau solairuak atzera berriz ipurdia maila bakoitzean ipinita jaitzaraziko lizkiokkeen musika batekin egingo nioake harrera.

—Nolanahi ere, ez dik kalte egingo aspirinak hartzea —esan diot, Dédéeri zeharka begiratzuz—. Nahi baduk, nik ir-teterakoan deituko zioat, horrela Dédéek ez dik jaitsi behar izango. Aizak, baina kontratu hori... Etzi hastekoa bahaiz zerbait egin daitekeela uste diat. Ni ere saia nintekék Rory Friendi saxo bat ateratzen. Eta okerreanean... Kontua da kontu-zago ibili beharko duala, Johnny.

—Gaur ez —esan du Johnnyk ron-flaskoari begira—. Bihar, saxoa edukitzean. Beraz, ez zagok zertan orain horretaz hitz egin. Bruno, zenbat eta hobeto konturatzen naizen ezen denbora... Uste diat musikak beti laguntzen duela kontu hau pixka bat ulertzen. Tira, ulertzen ez, zeren eta, egia esan, ez baitiat tutik ere ulertzen. Zerbait badagoela konturatu, hori besterik ez diat egiten. Amets horiek bezala, hara bada, non susmatzen hasten baihaiz ezen dena pikutara joango dela, eta beldur pixka bat izaten duk alde z aurretik; baina aldi berean ez hago batere ziur, eta onenean dena biratu egiten duk pankeke bat bezala eta bat-batean neska eder batekin oheratuta hago eta dena ezin perfektuagoa duk.

Dédéé katiluak eta edalontziak garbitzen ari da gelako izkina batean. Konturatu naiz iturriko urik ere ez dutela gelan; lore arrosekiko palankana bat ikusten dut eta azpil bat, animalia baltsamatu batean pentsarazten didana. Eta Johnnyk hizketan jarraitzen du mantak ahoa erdi tapatzen diola, eta hark ere baltsamatu bat dirudi, belauinak kokotsaren kontra eta aurpegia beltza eta laua, ronak eta sukarrak pixkanaka-pixkanaka hezetzen hasia.

—Gauza batzuk irakurri ditiat hori guztiari buruz, Bruno. Oso bitxia duk, eta, izan ere, hain zaila... Uste diat musika lagungarria dela, zera. Ulertzeko, ez, zeren eta berez



ez baitiat ezer ulertzen. —Ukabil itxiarekin buruan jotzen du. Koko baten hotsa ateratzen dio buruak.

—Hemen ez zagok deus, Bruno, deusik deus ere ez. Honek ez dik deus ez pentsatzen ez ulertzen. Sekula ez diat behar izan, egia esango badiat. Begietatik beherantz hasten nauk ni ulertzen, eta zenbat eta beherago, orduan eta hobeto ulertzen diat. Baina ez duk berez ulertzea, horretan bat natorrek.

—Sukarra igoko zaik —egin dio purrustaka Dédéek gelaren hondotik.

—O, hago isilik. Egia duk, Bruno. Sekula ez diat deusetan pentsatu, soil-soilik kolpetik konturatzen nauk pentsatu dudanez, baina horrek ez dik graziarik, ezta? Zer grazia izango du norberak zerbait pentsatu duela konturatu izanak? Berdin ziok, kasurako, hik pentsatu izan bahu edo beste edonork. Ez nauk ni, ni. Pentsatzen dudanetik probetxu ateratzen diat, besterik gabe, baina beti gero, eta hori duk jasan ezin diadana. A, zaila duk, hagitz zaila... Ez al da tragorik geratu?

Ronaren azken tantak eman dizkiot, hain zuzen ere Dédéek argia berriz pizten zuenean; ia ez zen ikusten gelan. Johnny izerditan dago, baina mantan bildua jarraitzen du, eta tarteka dardaratu egiten da eta kirrinka eginarazten dio besaulkiari.

—Oso mutikotan konturatu ninduan, saxoa jotzen ikasi eta ia berehala. Gure etxean mila deabruzko istilua egoten zuan beti, eta ez zuan hitz egiten zorrez baizik, hipotekez. Hik ba al dakik hipoteka bat zer den? Gauza izugarria izan behar dik, gure ama ileetatik tiraka aritzen baitzen zaharrak hipotekaz hitz egiten zion bakoitzean, eta kolpeka amaitzen zitean. Nik hamahiru urte nitian... baina entzuna daukak hori dena.

Izango ez dut, ba, entzuna; ahalegindu ez naiz, ba, hori ondo eta egiantzekotasunez idazten Johnnyren nire biografian.

—Horregatik denbora ez zuan sekula amaitzen etxean, zera. Borrokaz borroka, ia jan gabe. Eta hura gutxi bazen erlijioa, a, horri ezin diok antzik eman. Maisuak saxo bat lortu zidanean, ikusi izan bahu barrez lehertuko hintzena, orduan berehala konturatu nintzela uste diat. Musikak denboratik ateratzen nindian, esateko modu bat besterik ez den arren. Benetan zer sentitzen dudan jakin nahi baduk, nik uste diat

musikak denboran sartzen ninduela. Baina orduan sinetsi beharra zagok ezen denbora honek ez duela zerikusirik zerarekin... tira, gurekin, nolabait esatearren.

Aspalditxotik ezagutzen ditudanez Johnnyren haluzinazioak, haren biziera berdina duten guztienak, arretaz entzuten diot baina esaten ari denaz gehiegi kezkatu gabe. Nire artean ari naiz ordea nola lortu ote duen droga Parisen. Dédée galdetu beharko dut, haren balizko konplizitatea ezabatu. Johnnyk ezin izango du egoera horretan askoz gehiago iraun. Drogak eta miseriak ez dakite elkarrekin ibiltzen. Galtzen ari den musikan pentsatzen dut, Johnnyk presentzia hori, beste edozein musikarirengan duen aurrerapen txundigarri hori, uzten jarrai lezakeen dozenaka grabazioetan. “Hau bihar jotzen ari naiz” zentzu argi-argiz betetzen zait bat-batean, zeren eta Johnny beti ari baita bihar jotzen eta gainerakoak atzetik baitatozkio, bere musikaren lehenengo notekin berak ahaleginik gabe saltatzen duen orain honetan.

Nire mugak ulertzeko bezain jazz-kritikari sentikorra naiz, eta konturatzen naiz Johnny gizajoa bere esaldi moztuekin, bere hasperenekin, bere bat-bateko amorruekin eta bere lantuekin aurrera egiten saiatzen deneko planoaren azpitik dagoela pentsatzen ari naizena. Hari bost axola zaio bera jeniala dela nik uste izatea, eta sekula ez da harropuztu bere musika bere kideek jotzen dutena baino askoz harago egoteaz. Malenkoniaz pentsatzen dut bera bere saxoaren hasieran dagoela eta ni, berriz, amaierarekin konformatzera behartua bizi naizela. Bera ahoa da eta ni belarria, ez esatearren bera ahoa dela eta ni... Hasi, zapore gisa, kosk egitearen eta mastekatzearen gozamen gisa hasi zen zerbaiten amaiera tristea da, ai, kritikari oro. Eta ahoa berriz mugitzen da, ezpainenatik listu-zurrustatxo bat biltzen du Johnnyren mihi handiak gozozaletasunez. Eskuek marrazki bat egiten dute airean.

—Bruno, noizbait idatzi ahal izango bahu... Ez niregatik, hara, niri bost axola. Baina ederra izan behar dik, ederra izan behar duela sentitzen diat nik. Esaten ari nintzaietan umetan jotzen hasi nintzenean konturatu nintzela ezen denbora aldatu egiten zela. Hori Jimi kontatu nioan behin eta esan zidaan mundu guztiak gauza bera sentitzen duela, eta norbera abstraitzen denean... Horrela esan zian, norbera abstraitzen denean. Baina ez, ni ez nauk abstraitzen jotzen dudanean. Lekuz aldatu

besterik ez diat egiten. Igogailu batean bezala duk, hi igogailuan hago jendearekin hizketan, eta ez duk ezer arrarorik sentitzen, eta bitartean lehenengo solairua pasatzen duk, hamargarrena, hogeita batgarrena, eta hiria han behean gelditu duk, eta hi ari haiz sartzerakoan hasi duan esaldia bukatzen, eta berrogeita hamabi solairu zaudek lehenengo hitzen eta azkenekoen artean. Ni jotzen hasi nintzenean konturatu ninduan igogailu batean sartzen nintzela, baina denborazko igogailu bat zuan, horrela esan badiezaaket. Ez uste hipotekaz edo erlijioaz ahazten nintzenik. Kontua duk une horietan hipoteka eta erlijioa norberak jantzita ez daukan trajea bezalakoak zirela, besterik ez; nik bazakiat trajea jantzitegian dagoela, baina niri ez didak esango une horretan traje hori existitzen denik. Jantzen dudanean existitzen duk trajea, eta hipoteka eta erlijioa existitzen ziren jotzen amaitzen nuenean eta ama ilea xerloka zintzilik sartu eta kexatzen zenean deabruzko-musika-horrekin nik belarriak hausten nizkiolako.

Dédéék beste nescafé-kikara bat ekarri du, baina Johnnyk tristuraz begiratzen dio bere edalontzi hutsari.

—Denboraren zera hori korapilatsua duk, alde guztietatik heltzen zidak. Pixkanaka-pixkanaka ari nauk konturatzen denbora ez dela betetzen den poltsa bat bezalako. Esan nahi diat ezen barrukoa aldatzen badiat ere, poltsan ez dela kopuru bat besterik kabitzen eta kitto. Ikusten duk nire maleta, Bruno? Bi traje kabitzen dituk, eta bi zapata pare. Tira, orain imajina ezak maleta husten duala eta gero bahoia bi trajeak eta bi zapata pareak berriz jartzera, eta orduan konturatzen haiz traje bakarra eta zapata pare bakarra besterik ez direla kabitzen. Baina onena ez duk hori. Onena duk konturatzen haizenean denda oso bat sar dezakeala maletan, ehunka eta ehunka traje, nik musika denboran sartzen dudanean bezala jotzen ari naizenean, batzuetan. Musika eta métroan bidaiatzen dudanean pentsatzen dudana.

—*Métroan* bidaiatzen ari haizenean.

—E, bai, hor zagok koxka —esan du Johnnyk burlaizez—. *Métroa* asmakizun handia duk, Bruno. *Métroan* bidaiatuz konturatzen haiz maletan kabi litekeen guztiaz. Beharbada, ez nian saxoa *métroan* galdu, beharbada...

Barrez hasten da, ez tul egiten du, eta Dédéék kezkatuta begiratzen dio. Baina bera keinuka ari da, barre eta ez tula

egiten du dena nahasiz, manta azpian bere burua astinduz tximino bat bezala. Malkoak isurtzen zaizkio eta edan egiten ditu, barrez beti.

—Hobe gauzak ez nahastea —esaten du handik puska batera—. Galdu egin nian eta kitto. Baina *métroak* maletaren trikimailuaz konturatzeko balio izan zidak. Begira, gauza elastikoen zera hau oso bitxia duk, nik nonahi sentitzen diat. Dena elastikoa duk, motel. Gogorrek diruditen gauzek baditek elastikotasun bat...

Pentsatzen ari da, kontzentratuta.

—...elastikotasun geroratu bat —eransten du harrigarriro. Nik onarpenezko mireshmen-keinu bat egiten dut. Bejondeiala, Johnny. Pentsatzeko gauza ez dela dioen gizona. Hau duk hau Johnny. Eta orain benetan interesatuta nauka esan behar duenak, eta bera konturatu egiten da eta sekula baino burlaize handiagoz begiratzen dit.

—Zer uste duk, lortu ahal izango al diat beste saxo bat etzi jotzeko, Bruno?

—Bai, baina kontuz ibili beharko duk.

—Jakina, kontuz ibili beharko diat.

—Hilabeteko kontratua —esplikatzan du Dédéé gajoak—. Hamabost egun *Rémyren* boîtean, bi kontzertu eta diskoak. Hain ondo konpondu gintezkeen.

—Hilabeteko kontratua —imitatzen du Johnnyk imintzio handiz—.

*Rémyren boîtea*, bi kontzertu eta diskoak. Be-bata-bop bop bop, txrrr. Egarriak dago, horra, a zer egarria, a zer egarria. Eta a zer erretzeko gogoia, erretzekoa. Erretzeko gogoia batez ere.

Gauloises-pakete bat eskaintzen diot, ondotxo dakidan arren drogan pentsatzen ari dela. Ilundu du dagoeneko, hasi da pasilloan jendea joan-etorri, arabierazko berriketak, kantu bat. Dédéé joan egin da, afarirako zer edo zer eroatera, seguru asko. Johnnyren eskua sentitzen dut belaunean.

Neska jatorra duk, zera. Baina nazkatuta nauka. Aspaldi honetan ez diat Dédéé maite, ezin diat Dédéé jasan. Oraindik kitzikatu egiten naik, tarteka, bazakik maitasuna egiten zerak

bezala... —hatzak elkartzen ditu italiarren erara—. Baina neska horretaz libratu beharra zaukaat, New Yorkera itzuli beharra. Batez ere, New Yorkera itzuli beharra zaukaat, Bruno.

—Zertarako? Hemen baino okerrago henbilen han. Ez nauk lanaz ari, heure bizitzaz baizik. Hemen lagun gehiago dauzkaala iruditzen zaidak.

—Bai, hi hago eta markesa, eta klubeko mutilak... Ez duk egin sekula maitasuna markesarekin, Bruno?

—Ez.

—Tira, halakoxe zera bat duk... Baina ni *métro*az hizketan ari nintzaian, eta ez zakiat zergatik aldatzen dugun gaiz. *Métro*a asmakizun handia duk, Bruno. Behin batean *métro*an zerbait sentitzen hasi ninduan, gero ahaztu egin zitzaidan... Eta orduan errepikatu egin zuan, handik bizpahiru egunera. Eta konturatu egin ninduan azkenean. Erraza duk esplikatzen, zera, baina erraza duk berez ez delako benetako esplikazioa. Benetako esplikazioa ezin zitekek berez esplikatu. *Métro*a hartu beharko huke eta hiri noiz gertatu zain egon, nahiz iruditzen zaidan niri bakarrik gertatzen zaidala. Horrelakoxe zerbait duk, horra. Baina egiatan ez duk inoiz maitasuna egin markesarekin? Eskatu behar diok igotzeko aulki urre-kolorera, hantxe baitauka logelako izkinan, lanpara oso polit baten ondoan, eta orduan... Bah, bazatorrek hori bueltan.

Dédée fardel batekin sartzen da, eta Johnnyri begiratzten dio.

—Sukar handiagoa daukak. Deitu zioat medikuari, hamarretan etorriko duk. Lasai egoteko esan zidak.

—Tira, ondo da, baina aurrena *métro*arena kontatuko zionat Brunori. Lehengoan ondo konturatu ninduan gertatzen ari zenaz. Nire amagan pentsatzen jarri ninduan, gero Lanengan eta mutilengan, eta, jakina, berehala iruditu zitzaidan nire auzoan barrena oinez nindoala, eta mutilen aurpegiak ikusten nitian, garai hartakoak. Ez zuan pentsatzea, uste diat sarri esan diadala nik ez dudala sekula pentsatzen; kantoï batean geldirik bezala nagok pentsatzen ari naizena pasatzen ikusten, baina ez diat ikusten dudana pentsatzen. Konturatzen al haiz? Jimek esaten dik denok berdinak garela, oro har (horrela esaten dik) norberak ez duela bere kabuz pentsatzen. Demagun horrela dela, kontua duk nik *métro*a Saint-Michel geltokian hartu nuela

eta berehala hasi nintzela Lanengan eta mutilengan pentsatzen, eta auzoa ikusten. Eseri orduko haiengan pentsatzen hasi ninduan. Baina aldi berean konturatzen ninduan *métroan* nengoela, eta ikusi nian handik gutxi gorabehera minutu batera Odéonera iritsi ginela, eta jendea sartu-irten ari zela. Orduan Lanengan pentsatzen segitu nian eta nire ama ikusi nian erosketak egitetik etorrira, eta hasi ninduan denak ikusten, haiekin batera modu txit ederrean egoten, aspaldi sentitzen ez nian bezala. Oroitzapenak kaka putza izaten dituk beti, baina oraingoan gustura nengoan mutilengan pentsatzen eta haiek ikusten. Ikusi nian guztia kontaktzen jartzen banauk, ez duk sinetsiko, puska baterako izango bainuke. Eta xehetasun asko alde batera utzita, hala ere. Adibidez, gauza bakarra esateko, Lan ikusten nian Club 33ra joateko janzten zuen soineko berde batekin, nik han jotzen bainian Hampekin. Soinekoa ikusten nian xingola batzuekin, motots batekin, apaingarri moduko batekin alboan eta lepo batekin... Ez aldi berean, aitzitik, Lanen soinekoaren inguruan paseatzen ari ninduan eta poliki begiratzen nioan. Eta gero Lanen aurpegiari eta mutilenei begiratu nieran, eta gero Mikez akordatu ninduan, aldameneko gelan bizi zuan-eta, eta nola Mikek Koloradoko zaldi izu batzuen kontakizuna kontatu zidaan, eta hark arrantxo batean lan egiten baitzian eta paparra aterata berba egiten baitzian zaldi-hezitzaileek bezala ...

—Johnny —esan du Dédéek bere txokotik.

—Egizak kontu pentsatzen eta ikusten ari nintzen guztiaren puskatxo bat besterik ez naizela hiri kontaktzen ari. Noiztik ari natzaik puskatxo hori kontaktzen?

—Ez zakiat, demagun bi minutu inguru.

—Demagun bi minutu inguru —imitatzen du Johnny—. Bi minutu eta puskatxo bat besterik ez diat kontatu. Baldin eta kontatuko baniake mutilei egiten ikusi niena, eta nola Hampek *Save it, pretty mamma* jotzen zian eta nik nota bakoitza entzuten nian, ulertzen, nota bakoitza, eta Hamp ez duk nekatzen denetakoa, eta baldin eta kontatuko baniake ezen nire amari ere entzun niola otoitz luze-luze bat, non azak aipatzen baitzituen, uste diat, barkamena eskatzen zian nire aitagatik eta niregatik eta aza batzuen aipua egiten zian... Tira, baldin eta hori dena zehatz-mehatz kontatuko baniake, bi minutu baino gehiago pasatuko zituan, e, Bruno?

—Benetan hori dena entzun eta ikusi izan bahu, ordu laurden eder bat pasatuko zuan —esan diot, barrez.

—Ordu laurden eder bat pasatuko zuan, e, Bruno. Orduan esango didak, ba, nola izan daitekeen nik bat-batean sentitzea *métroa* gelditu egiten dela eta ni nire amagandik eta Lanengandik eta hura guztitik ateratzen naizela, eta ikusten dudala Saint-Germain-des-Présen gaudela, Odeónetik hain zuzen ere minutu eta erdira geratzen baita.

Ez naiz inoiz gehiegi kezkatzen Johnnyk esaten dituen gauzez, baina orain, niri begiratzeko haren moduarekin, hotza sentitu dut.

—Minutu erdi doi-doi hire denboraren arabera, neska honen denboraren arabera —esan du gorrotoz Johnnyk—. Eta baita ere *métroaren* eta nire ordulariaren arabera, madarikatuak izan bitez. Orduan, nola liteke ni ordu laurden batez pentsatzen aritu izana, e, Bruno? Nola pentsa liteke ordu laurden bat minutu eta erdi batean? Zin dagiat egun horretan ez niala ez puskatxorik ez hostotxorik erre —eransten du barkamena eskatzen ari den mutiko batek bezala—. Eta gero berriz gertatu izan zaidak, orain nonahi gertatzen hasi zaidak. Baina —eransten du maltzur— *métroan* bakarrik kontura naiteke, zeren eta *métroan* bidaiatzea ordulari batean sartuta egotea bezalakoa baita. Geltokiak minutuak dituk, ulertzen didak, zuen denbora hori duk, oraingo hori; baina nik bazakiat badagoela beste bat, eta pentsatzen aritu nauk, pentsatzen...

Aurpegia eskuekin estali eta dardar egiten du. Nik alde egina egon nahi nukeen ordurako, eta ez dakit nola egin Johnny erresumindu gabe agur esateko, izugarri sentikorra baita bere lagunekin. Horrela jarraitzen badu kalte egingo dio, Dédéerekin behinik behin ez du gauza horiez hitz egingo.

—Bruno, baldin eta soil-soilik une horietan bezala bizi ahal banendi, edo jotzen ari naizenean eta denbora ere aldatu egiten denean bezala... Konturatzen haiz zer gerta litekeen minutu eta erdi batean... Orduan gizon bat, ez bakarrik ni, baita ere neska hau eta hi eta mutil guztiak ehunka urte bizi ahal izango lirateke, baldin eta modua aurkituko bagenu, bizi ahal izango gintezke ordularien, minutuen mania horren eta etziren eta abarren erruz bizitzen ari garena baino mila bider gehiago.

Ahal dudan hobekiena egiten dut irribarre, nolabait ulertuz arrazoi duela baina berak susmatzen duena eta nik haren susmoaz sumatzen dudana ezabatu egingo dela beti bezala kalean egon orduko eta eguneroko nire bizitzan sartuko naizen orduko. Une horretan ziur nago Johnnyk esaten duena ez dela soil-soilik jaiotzen bera erdi erotuta dagoelako, errealitateak ihes egiten diolako eta trukean berak itxaropen bihurtzen duen parodia moduko bat uzten diolako. Horrelako uneetan Johnnyk esaten didan guztia (eta bost urte baino gehiago badira Johnnyk antzeko gauzak esaten dizkidala niri eta esaten dizkiela guztiei) ezin da entzun nor bere buruari hitzemanetz gero berriz pentsatuko duela horretan. Kalean egon orduko, hitzak errepikatzen dituena oroitzapena eta ez Johnny den orduko, marihuanaren fantasiatze, eskuak mugitze monotono bihurtzen da dena (zeren eta bai baitaude beste batzuk antzeko gauzak esaten dituztenak, noiznahi izaten da antzeko lekukotasunen berri) eta miragarriaren ondoren haserrea jaiotzen da, eta niri behintzat gertatzen zait Johnnyk adarra jo izan balit bezala sentitzen naizela. Baina hori biharramunean gertatzen da beti, ez Johnny esaten ari zaidanean, zerren orduan sentitzen baitut badagoela zatiren batean amore eman nahi duen zerbait, argitu nahian dabilen argi bat, edo, areago, gauzaren bat hautsi beharra balego bezala, goitik behera hautsi, enborrari ziria sartuz eta hura amaiera arte mailukatuz bezala. Eta Johnnyk ez du jadanik ezer mailukatzeko indarrik, eta nik jakin ere ez dakit zer mailu beharko litzatekeen imajinatu ere egiten ez dudan ziri bat sartzeko.

Beraz gelatik joan naiz azkenean, baina gertatu behar duten gauza horietako bat gertatu da aurrenik —hori edo antzeko bat—, eta, izan ere, Dédéé agurtzen ari nintzenean eta Johnnyri bizkarra ematen, zerbait gertatzen ari zela sentitu dut, Dédééren begietan ikusi dut eta berehala jiratu naiz (zeren eta beharbada beldur pixka bat baitiot Johnnyri, nire anaia bezalakoa den aingeru horri, nire aingerua bezalakoa den anaia horri) eta Johnny ikusi dut kolpetik bera bilduta zeukan manta kendu duela, eta besaulkian eserita ikusi dut zeharo biluzik, hankak altxatuta eta belauak kokots ondoan, dardarka baina barrez, besaulki krakatsuan goitik behera biluzik.

—Berotzen hasi du —esan du Johnnyk. Bruno, begira zer ebakiondo polita daukadan saihets artean.



—Tapa zaituz —agindu du Dédéek, lotsatuta eta zer esan jakin gabe. Aski ezagutzen dugu elkar eta gizon biluzi bat ez da gizon biluzi bat baizik, baina nolana ere Dédéek lotsatu egin da eta nik ez nekien nola egin Johnny egiten ari zenak harritu egiten ninduelako itxura ez emateko. Eta berak bazekien eta bere ahozabal osoarekin barre egin du, obszinitatez edukiz hankak altxatuta, tximinoa zoon bezala sexua besaulkiaren ertzean zintzilik duela, eta izterretako azala nazka infinitu bat eman didaten orban arraro batzuekin. Orduan Dédéek mantari heldu, eta presaz bildu du gizona, Johnny barrez ari zen artean, pozarren, itxuraz. Agur lauso bat egin diot, biharamunean etorriko naizela hitzemanetz, eta Dédéek eskailera bururaino lagundu dit, atea itxiz, esan behar didana Johnnyk ez entzuteko.

—Belgikako biratik itzuli ginenez gero dago horrela. Eder-ederki jo zuen leku guztietan, eta ni poz-pezik nengoan.

—Droga nondik atera ote duen galdetzen diot neure buruari —esan dut, Dédéeri begietara begiratzuz.

—Ez dakit. Ardoa eta koñaka edaten aritu da ia denbora guztian. Baina erretzen ere aritu da, nahiz han baino gutxiago...

Han Baltimore eta New York da, Bellevueko ospitale psikiatrikoan eginiko hiru hilabeteak, eta Camarilloko egonaldia luzea.

—Benetan ondo jo du al Johnnyk Belgikan, Dédéek?

—Bai, Bruno, inoiz baino hobeto, nire ustez. Jendea erotuta zegoen, eta orkestrako mutilek askotan esan zidaten. Bat-batean gauza arraroak gertatzen ziren, Johnnyrekin beti gertatzen den bezala, baina zorionez sekula ez jendaurrean. Nik uste nuen... baina ikusten duzu, orain sekula baino okerragoa da.

—New Yorken baino okerragoa? Zuk ez zenuen urte haietan ezagutu.

Dédéek ez da tuntuna, baina ezein emakumeri ez zaio gustatzen inork bere gizona aipatzea oraindik bere bizitzan ez zegoen garaian, kontuan hartu gabe orain jasan egin behar duela eta lehengokoak ez direla berba hutsak baizik. Ez dakit nola esan berari, eta erabateko konfiantzarik ere ez diot, baina hartzen dut azkenean erabakia.

—Dirurik gabe gelditu zaretela imajinatzen dut.

—Etzi hasteko kontratu hori daukagu —esan du Dédéek.

—Grabatu eta jendaurrean agertu ahal izango dela uste duzu?

—O, bai —esan du Dédéek, harritu samarturik—. Johnnyk inoiz baino hobeto jo dezake, baldin eta Bernard doktoreak gripea mozten badio. Saxoa da kontua.

—Arduratuko naiz horretaz. Hemen duzu, Dédéé. Hara bada... Johnnyk ez jakitea litzateke onena.

—Bruno...

Keinu batez, eta eskailera jaisten hasiz, gelditu egin ditut berba imajinagarriak, Dédéeren esker on alferrikakoa. Lauzpabost mailez berarengandik bereizita, errazagoa izan zait hari esatea.

—Inolaz ere ez du erre behar lehenengo kontzertua baino lehen. Utzizu pixka bat edaten, baina ez eman dirurik bestearentzat.

Dédéek ez du ezer erantzun; nahiz ikusi dudana nola haren eskuek billeteak tolesten eta tolesten zituzten, desagerarazi arte. Badut, behinik behin, Dédéek erretzen ez duelako ziurtasuna. Beldurretik edo maitasunetik jairo daiteke haren konplizitate bakarra. Baldin eta Johnny belauniko jartzen bada, Chicagon ikusi dudana bezala, eta negarrez erregutzen badio... Baina beste hainbat bezalako arriskua da Johnnyrenean, eta jateko eta sendagaietarako egongo da oraingoz dirua. Gabardinako lepoa igo dut kalean zirimiria egiten hasi duelako, eta biriketara min hartu arte hartu dut arnasa; iruditu zait Parisek garbi usaina zuela, ogi beroaren usaina. Ez naiz orain arte konaturatu nolako usaina zuen Johnnyren gelak, Johnnyren gorputzak manta azpian izerditan. Kafetegia batean sartu naiz koñak bat edateko eta ahoa garbitzeko, oroimena ere bai behar bada, tematuta baitago Johnnyren berbetan, haren ipuinetan, nik ikusten ez dudana eta funtsean ikusi nahi ez dudana ikusteko haren moduan. Etzin pentsatzen hasi naiz eta lasaitasun bat bezalakoa zen, mostradoretik aurrera ondo zabaldutako zubi bat bezalakoa.

Norbera ezertaz ziur ez dagoenean, bere buruari flota-gailu gisako betebeharrak sortzea izaten da onena. Ea markesa Johnny Carterri marihuana ematen ari ote zaion jakiteko betebeharra nuela pentsatu dut handik bizpahiru egunera, eta Montparnasseko estudiora joan naiz. Markesa zinez da markesa, diru pila dauka, markes jaunarengandik datorkiona, nahiz aspalditxo dibortziatu ziren marihuanagatik eta antzeko arrazoi batzuegatik. Johnnyrenganako haren adiskidetasuna New Yorketik dator, seguru asko Johnny gauetik goizera ospetsu egin zen urtetik, eta ospetsu egin zen norbaitek haren estiloa gustatzen zitzairen lauzpabost mutil biltzeko aukera eman ziolako, besterik gabe, eta Johnnyk lehen aldiz jo ahal izan zuen bere gisara eta txundituta utzi zituen guztiak. Hau ez da jazz-kritika egiteko unea, eta interesatuek irakur dezakete Johnnyri eta gerraondoko estilo berriari buruzko nire liburua, baina argi esan dezaket berrogeita zortzian —berrogeita hamarra arte esan dezagun— musikaren leherketa moduko bat izan zela, baina leherketa hotza, isila, gauza bakoitza bere lekuan utzi zuen leherketa, eta ez zen ez garrasirik ez hondakinik izan, baina azturaren zolda milioika puskatan pitzatu zen eta haren defendatzaileek ere (orkestretan eta publikoan) buru-estimuko auzi bihurtu zuten jadanik lehen bezala sentitzen ez zuten zerbit. Zeren eta Johnny saxo altutik igaro ondoren ezin baita aurreko musikariak entzuten jarraitu eta non plus ultra direla sinetsi; zentzu historikoa deitzen den etsipen mo-zorroto gisako hori aplikatzearekin konformatu beharra dago, eta esan beharra dago musikari horietako edonor zoragarria izan dela eta zoragarria dela oraindik bere-garaian. Orriari bira eman dion eskua bezala pasatu da Johnny jazzetik, eta akabo.

Markesak, zeinak musika den ororentzat erbi-txakurra-ren belarriak baititu, ikaragarri miretsi izan ditu beti Johnny eta taldeko haren lagunak. Imajinatzen dut dolar ez gutxi emango zizkiela Club 33ko egunetan, kritikari gehienek Johnnyren grabazioengatik protesta egiten zutenean eta irizpide ustel baino ustelagoen arabera juzgatzen zutenean haren jazza. Seguru asko garai hartantxe ere hasia izango zen markesa Johnnyrekin noiz edo noiz oheratzen, eta harekin erretzen. Sarritan ikusi izan ditut elkarrekin grabazio-saioen aurretik edo kontzertuetako atsedendietan, eta Johnnyk izugarri pozik zirudien markesaren ondoan, nahiz beste platearen batean edo etxean

Lan eta umeak beraren zain zeuden. Baina Johnnyk sekula ez du tutik ere jakin ezer itzarotea zer den, eta ez du ezta ere imajinatzen norbait beraren zain egon daitekeenik. Lan uzteko haren moduak ere bete-betean itxuratzen du Johnny. Ikusia naiz Erromatik bidali zion postala, lau hilabetez kanpoan egon ondoren (hegazkin batera igo zen beste bi musikarirekin Lanek ezer jakin gabe). Postalak Romulo eta Remo irudikatzen zituen, grazia handia egin izan baitiote beti Johnnyri (izen hori zuen haren grabazioetako batek), eta honela zioen: “Bakarrrik nabil maitasun andana batean”, zeina Dylan Thomasen poema baten pasarte bat baita, Johnnyk denbora guztian irakurtzen baitu Dylan Thomas. Johnnyk Estatu Batuetan zituen agenteak moldatu ziren haren irabazien zati bat kentzeko eta Lani emateko, eta Lanek, berriz, azkar ulertu zuen ez zuela hain negozio txarra egin Johnnyz libratuz. Norbaitek esan zidan markesak ere dirua eman ziola Lani, Lanek nondik zetorren jakin gabe. Ez naiz harritzen, markesa burugabeki ona baita eta mundua ulertzen baitu adiskideak saldoan etortzen hasten zaizkionean bere estudioan ontzen dituen tortillak bezala nolabait, eta horrek esan nahi du tortilla iraunkor moduko bat daukala eta gauza desberdinak botatzen dizkiola eta puskak ateratzen dizkiola eta eskaini egiten dituela behar denean.

Marcel Gavotyrekin eta Art Boucayarekin aurkitu dut markesa, eta ari ziren hain zuzen Johnnyk aurreko arratsaldean egin zituen grabazioez hizketan. Gainera etorri zaizkit goiaingeru bat etortzen ikusi izan balute bezala, markesak nekatu arte musukatu nau, eta mutilek bizkarrekoak eman dizkidate kontrabaxu-jotzaile bat eta saxo baritono-jotzaile bat bizkarrekoka ari daitezkeen bezala. Besaulki baten atzean babestu behar izan dut, ahal nuen moduan defendatuz, eta zergatik eta jakin dutelako ni naizela Johnnyk bere lauzpabost inprobisaziorik onenak grabatu berriak ditueneko saxo bikainaren hornitzailea. Markesak berehala esan du Johnny arratoi nazkagarri bat zela eta nola berarekin liskartuta zegoen (ez du esan zergatik) arratoi nazkagarriak ondotxo zekiela berari behar bezala barkamena eskatuz bakarrik lortu ahal izango zuela saxo bat erostera joateko txeketa. Jakina, Johnnyk ez du barkamena eskatu nahi izan Parisa itzuli denez gero — liskarra Londresen izan da, nonbait, duela bi hilabete— eta era horretara inork ezin zezakeen jakin bere saxo alua *métroan* galdu zuela, etabar. Markesa hizketan hasten denean batek

galdetzen dio bere buruari ea ez ote zaion Dizzyren estiloa hizkuntzari itsatsi, zeren eta erregistrorik ezustekoenetako bariazio sail amaiezin bat baita, harik eta azkenean markesak bere izterretan kolpe handi bat jo, ahoa zeharo zabaldu eta norbait kilimaka bera hiltzen ari balitz bezala barrez hasten den arte. Eta orduan Art Boucayak aprobetxatu du niri atzoko saioaz xehetasunak emateko, galdu egin bainuen nire emaztearen erruz, pneumoniarekin zegoenez.

—Ticak fede eman zezakek —esan du Artek markesa seinalatuz, barrez lehertzen ari baita—. Bruno, diskoak entzun arte ezin duk imajinatu hura zer izan zen. Baldin eta Jainkoa atzo nonbaiten bazegoen, sinetsidak grabazio-gela alu horretan zegoela, non mila deabruzko beroa egiten zian, bide batez esanda. Gogoratzen al haiz *Willow Treez*, Marcel?

—Gogoratzen nauk, bai —esan du Marcelek—. Gogoratzen ote naizen galdetzen zidak ergelak. Burutik oinetaraino tatuatuta nagok *Willow Treerekin*.

Ticak *bigballak* ekarri dizkigu eta eroso jarri gara berriketarako. Berez gutxi hitz egin dugu atzoko saioaz, zeren eta edozein musikarik baitaki ezin dela gauza horietaz hitz egin, baina esan duten gutxiak itxaropenen bat itzuli dit eta pentsatu dut nire saxoak suerte ona ekarri diola beharbada Johnnyri. Nolanahi ere, ez dira falta izan itxaropen hori hoztuko duten pasadizoak, nola den adibidez Johnnyk zapatak erantzi dituela grabazioaren eta grabazioaren artean, eta oinutsik paseatu dela estudioan zehar. Baina, aldiz, adiskidetu egin da markesarekin eta hitzeman du estudioa etorriko dela kopa bat hartzera gaur gaueko bere aurkezpenaren aurretik.

—Ezagutzen al duzu Johnnyk orain duen neska? —jakin nahi izan du Ticak. Ahalik eta deskribapenik laburrena egin diot, baina Marcelek frantses erara osatu dio, markesa izugarri dibertitu duten era guztitako ñabardura eta aipamenekin. Droga ez da ezertarako aipatu, nahiz ni hain beldur antzean nagoen non Ticaren estudioaren airean usaintzea iruditu baitzait, kontuan hartu gabe Johnnyri eta Arti ere batzuetan sumatzen diedan modu batez egiten duela Ticak barre, eta zeinak drogazaleak salatzen baititu. Galdetzen diot neure buruari nola lortu ote duen Johnnyk marihuana, baldin eta markesarekin liskartuta bazegoen; zakarki jausi da lurrera

Dédéerengan neukan konfiantza, baldin eta berez konfiantza banion. Denak berdinak dira funtsean.

Inbidia pixka bat ematen dit berdintasun horrek, elkarrengana hurbiltzen baititu, halako erraztasunez konplize bihurtzen baititu; nire mundu puritanotik —aitortu beharrik ez daukat, ni ezagutzen nauen edonork badaki zer nolako higuina diodan desorden moralari— aingeru gaixotuen gisara ikusten ditut, arduragabekeriaren arduragabekeriaz haserre-tzaileak, baina zaintzak Johnnyren diskoak eta markesaren eskuzabaltasuna bezalako gauzekin ordaintzen dituztenak. Eta ez dut dena esaten, eta nahi nuke esatera bortxatu neure burua: inbidia diet, inbidia diot Johnnyri, beste aldeko Johnny horri, nahiz inork ez dakien zehatz-mehatz beste alde hori zer den. Guztiak ematen dit inbidia, haren oinazeak izan ezik, ulerbide erraza du horrek edonorentzat, baina baita haren oinazean ere egon behar du ukatua zaidan zerbaiten zantzurik. Inbidia diot Johnnyri eta aldi berean amorrua ematen dit ari delako bere burua suntsitzen bere dohainen erabilera okerrez, bere bizi-presioak eskatzen dion burugabekeria-meta-tze ergelez. Nire ustez, baldin eta Johnnyk orienta ahal baleza bizitza hori, baita hari ezer sakrifikatu gabe ere, ezta droga ere, eta baldin eta hobeto pilotatuko balu azken bost urteotan itsuan dabilen hegazkin hori, beharbada okerrenean bukatuko luke, erabateko eromenean, heriotzan, baina ez a posterioriko bere bakarrizketa tristeetan eta esperientzia liluragarri baina bide erdian geratzen direnen bere zenbaketetan bila ari dena bete-betean ukitu gabe. Eta nire koldarkeria pertsonaletik diot hori dena, eta, beharbada, nahi nuke funtsean Johnnyk behingoz amaitzea, mila puskatan haustea astronomoak as-tebetez lelotuta uzten dituen izar bat bezala, eta gero ohera joaten da bat eta bihar beste egun bat da.

Irudi luke ni pentsatzen aritu naizen guztiaren susmo antzeko bat izan duela Johnnyk, zeren eta diosal alai bat egin baitit sartzerakoan eta ia berehala etorri baita nire ondoan eser-tzera, markesari musu eman eta hura airean jirarazi ondoren, eta harekin eta Artekin erritual onomatopeiko korapilatsu bat trukatu ondoren, denei grazia handia egin diena.

—Bruno —esan du Johnnyk, besaulkirik onenean jesarriz —trastea zoragarria duk eta esan dezatela hauek zer atera nioan atzo hondotik. Ticari bonbilla elektrikoak bezalako

malkoak isurtzen zitzaizkioan, eta ez diat uste jostunari dirua zor diolako zenik, e, Tica?

Saioaz zerbaít gehiágo jakin nahi izan dut, baina Johnnyk aski du harrotasun-gainezkatze hori. Ia berehala hasi da Marcelekin hizketan gaur gaueko egitarauaz eta bieí ondo-ondo geratzen zaizkien antzokian aurkezteko traje gris berri-berriez. Johnny oso ongi dago benetan eta ageri du egun batzuk badaramatzala gehiegi erre gabe; gustura jotzeko zehatz-mehatz behar duen dosia izan behar du, nonbait. Eta hain zuzen ere hori pentsatzen ari naizenean, Johnnyk eskua sorbaldan jartzen dit eta makurtu egiten da niri esateko:

—Dédéék kontatu zidak oso gaizki egon nintzela hirekin lehengo arratsaldean.

—Bah, ez hadi gogoratu ere egin.

—Oso ondo gogoratzen nauk-eta. Eta nire iritzia nahi baldin baduk, berez primeran egon ninduan. Pozik egon behar huke ni hirekin horrela portatu izanaz; ez diat inorekin egiten, sinetsidak. Zenbat estimatzen haudan erakusten dik horrek. Elkarrekin joan behar diagu lekuren batera gauza pila batez hitz egitera. Hemen... —Beheko ezpaina ateratzen du, destainari, eta barre egiten du, sorbaldak jasotzen ditu, besaulkian dantzan ari dela dirudi—. Bruno zaharra. Dédéék zioak oso gaizki portatu nintzela, benetan.

—Gripeak jota hengoen. Hobeto al hago?

—Ez zuan gripea. Medikua etorri zuan, eta berehala hasi zitzaidaan esaten jazza izugarri gustatzen zaiola eta gau batean haren etxera joan behar dudala diskoak entzutera. Dirua eman hioala kontatu zidaan Dédéék.

—Atakatik ateratzeko, hik kobratu arte. Zer moduz gaur gauekoa?

—Tira, jotzeko gogoz nagok eta oraintxe bertan joko nikek saxoa baneuka, baina Dédée tematu egin duk saxoa antzokira berak eramaten. Saxo aparta duk, hura joz maitasuna egiten ari nintzela iruditu zitzaidaan atzo. Amaitu nuenean Ticaren aurpegia ikusi izan bahu. Jeloskor hengoen, Tica?

Eta barre algaraka hasi dira berriz, eta Johnnyri egokia iruditu zaio poz-jauzi handiak emanez estudioan zehar korrika ibiltzea, eta haren eta Arten artean dantzatu egin dira musikaririk

gabe, konpasa markatzeko bekainak igoz eta jaitsiz. Ezinezkoa da Johnnyrekin edo Artekin pazientzia galtzea; haizearekin ilea harrotzen digulako haserretzea bezala litzateke. Ahapetik, Ticak, Marcelek eta nik iritziak trukatu ditugu gaueko aurkezpenaz. Marcel ziur dago ezen Johnnyk 1951ko arrakasta itzela errepikatuko duela, Parisa lehen aldiz etorri zenekoa. Atzokoaren ondoren ziur dago dena ondo aterako dela. Bera bezain lasai sentitu nahi nuke, baina nolana ere ezin dut besterik egin lehenengo ilaretan eseri eta kontzertua entzun baizik. Badut gutxienez Johnny Baltimoreko gauean bezala drogatuta ez dagoelako lasaitasuna. Ticari hori esan diodanean, eskua zapaldu dit uretara erortzeko zorian banengo bezala. Art eta Johnny pianoraino joan dira, eta Art kantu berri bat erakusten ari zaio Johnnyri, zeinak burua mugitzen eta ahopeka kantatzen baitu. Biak dotore-dotore daude beren traje grisekin, azkenaldi honetan bildu duen gantzak Johnnyri kalte egiten dion arren.

Ticarekin Baltimoreko gauaz hitz egin dugu, Johnnyk lehen krisi biolentoa izan zuenekoaz. Berbetan ari ginen artean begietara begiratu diot Ticari, ziur egon bainahi nuen ulertzen didala eta ez duela oraingoan amore emango. Baldin eta Johnny koñak gehiegi edatera edo droga apur bat erretzera iristen bada, kontzertua porrota izango da eta dena gain-behera etorriko da. Paris ez da probintziako kasino bat eta Johnnyrengan jarria du mundu guztiak begia. Eta hori pentsatzen dudán artean ezin diot neure buruari eragotzi gustu txar bat ahoan, haserre bat, zeina ez baita Johnnyren kontrakoa eta ezta ere gertatzen zaizkion gauzen kontrakoa; areago da nire eta hark inguruan duen jendearen kontrakoa, markesa eta Marcel, adibidez. Funtsean geurekoi talde bat gara, Johnny zaintzeko aitzakian berataz guk dugun ideia ari gara salbatzen, Johnnyk emango dizkigun plazer berrietarako geure buruak prestatzen, guztion artean jaso dugun estatuari distira ateratzen eta kosta ahala kosta defendatzen. Johnnyren porrota txarra litzateke nire liburuarentzat (une batetik bestera aterako da ingelesezko eta italierazko itzulpena), eta ziur asko horrelako gauzez egina egongo da Johnnyren nire zaintzaren parte bat. Artek eta Marcelek Johnny behar dute ogia irabazteko, eta markesak, auskalo zer ikusten duen markesak Johnnyrengan, haren talentuaz aparte. Horrek guztiak ez du zer eginik beste Johnnyrekin, eta bat-batean konturatu naiz ezen agian



Johnnyk hori esan nahi zidala manta kendu eta har bat bezala biluzik agertu zenean, Johnny saxorik gabe, Johnny dirurik eta arroparik gabe, Johnny zerbaitekin obsesionatuta, haren adimen eskasa ulertzerantz iristen ez den baina haren musikan astiro flotatzen duen, haren azala laztantzen duen, guk sekula ulertuko ez dugun jauzi ezusteko baterako bera beharbada prestatzen ari den zerbaitekin.

Eta horrelako gauzak pentsatzen direnean benetan gustu txarra sentitzen du batek ahoan, eta munduko egiazaletasun guztiak ez du ordaintzen Johnny Carter bezalako tipo baten ondoan norbera zikinkeria ziztrin bat delako aurkikuntza, eta orain Johnny sofara etorri da bere koñaka edatera, eta niri begira daukat itxura dibertigarri. Bada ordua denok Pleyel aretora joateko. Musikak salba dezala behinik behin gauetik geratzen den gainerakoa, eta bete dezala bete-betean haren eginbiderik okerrenetako bat, ispiluaren aurrean guri bionbo eder bat jartzekoa, gu mapatik pare bat orduz ezabatzekoa.

Normala den bezala gaurko kontzertuaren kronika bat idatziko dut bihar *Jazz Hoterako*. Baina hemen, tarteetan belaun baten gainean zirriborratutako takigrafia honekin, ez dut ezein desirarik sentitzen kritikari gisa mintzatzeko, alegia, konparazioz berresteko. Ondotxo dakit niretzat Johnnyc jazzman bat izateari utzi diola eta haren jenio musikala fatxada bat bezalakoa dela, mundu guztia ulertzerantz eta mirestera irits daitekeen zerbait baina beste zerbait ezkutatzeko duena, eta beste gauza hori da axola behar lidakeen bakarra, beharbada Johnnyc benetan axola dion gauza bakarra delako.

Erraza da hori esatea, oraindik Johnnycen musika naizen artean. Hozten denean... Zergatik ezingo dut bera bezala egin, zergatik ezingo naiz paretaren kontra buruz jaurti? Zehatz-mehatz hobesten ditut hitzak haiek deskribatu nahi didaten errealitatea baino, dialektika ergel bat baino ez diren kontsideraziotan eta susmotan gerizatzen naiz. Ulertu uste dut zergatik otoiak instintuz eskatzen duen belauniko erortzea. Ahotsaren aldaketaren, ahotsa ahoskatzerantz doanaren, ahoskatzen denaren beraren aldaketaren sinboloa da jarrera aldaketa. Aldaketa hori lauso artean ikusteko puntura iristen naizenean, segundo bat lehenago arte arbitrarioak iruditu zitzaizkidan gauzak zentzu sakonez betetzen dira, izugarri sinplifikatzen dira eta aldi berean sakontzen. Ez Marcel eta ez

Art konturatu ziren atzo Johnny ez zegoela erotuta grabazio-aretoan zapatak erantzi zituenean. Johnnyk une horretan zorua bere azalarekin ukitu beharra zeukan, lurrari lotu beharra zeukan, bere musika lurraren berreste bat zelako eta ez ihes egite bat. Hori ere sentitzen baitut Johnnyrengan, alegia, ez dabilela ezerengandik ihesi, ez da ihes egiteko drogatzen biziotsu gehienak bezala, ez du saxoa jotzen musika-hobi baten atzean bere burua ezkutatzeko, ez ditu aste osoak klinika psikiatrikoetan pasatzen jasateko gai ez den presioen gerizpean sentitzeko. Haren estiloak ere, harengan dagoen benetazkoenak, ezein izenen premiarik izan gabe izen absurdoak merezi dituen estilo horrek, frogatzen du Johnnyren artea ez dela ez ordezkatzeko bat ezta osatzeko bat ere. Johnnyk abandonatu egin du orain dela hamar urte arte gutxi-asko ohikoa zen *hot* mintzaira, zeren eta berarentzat mintzaira biolentoki erotiko hori pasiboegia baitzen. Haren kasuan, desira plazeraren aurrean jartzen da eta zapuztu egiten du, zeren eta desirak aurrera egitea, bilatzea, eskatzen baitio, jazz tradizionalaren topaketa errazak aldeztu aurretik ukatuz. Horregatik, uste dut, Johnnyri ez zaizkio *bluesak* askorik gustatzen, zeinetan masokismoa eta nostalgiak... Baina horretaz guztiaz hitz egina naiz nire liburuan, erakutsiz nola berehalako gozamenaren ukoak bultzatu zuen Johnny berak eta beste musikari batzuek gaur azken posibilitateetaraino eramaten ari diren mintzaira bat lantzerako. Jazz horrek baztertu egiten du erotismo erraz oro, wagneriartasun oro, honela esatearren, ustez lokabetuta dagoen plano batean bere burua kokatzeko, non musika erabateko askatasunean gelditzen baita, hala nola geratzen baita aske errepresentaziotasunetik banandutako pintura, pintura baino ez izateko. Baina orduan, ez orgasmoak eta ez nostalgiak errazten ez dituen musika baten jabe, metafisikoa deitzea gustatuko litzaidakeen musika baten jabe, badirudi Johnny hartaz baliatzen dela bere burua esploratzeko, egunero ihes egiten dion errealitateari kosk egiteko. Hor ikusten dut haren estiloaren paradoxa, haren efikazia agresiboa. Bere burua gogobetetzeko ezgai, etengabeko akuilu gisa balio du, eraikuntza infinitu baten gisa, zeinaren plazera ez dago errematean, errepikatze esploratzailean baizik, berehalakotasunez gizatiarra dena gizatasunik galdu gabe atzean uzten duten gaitasunen adibidean. Eta Johnny galdu egiten denean gaur gauean

bezala bere musikaren sorkuntza jarraituan, ondotxo dakit nik ez dabilela ezertatik ihesi. Topaketa batera joatea ezin liteke sekula ihes egitea izan, nahiz hitzorduaren lekua aldiko zokoratu; eta atzean gera daitekeenari dagokionez, Johnnyk ez daki edo mespretxatu egiten du zeharo. Markesak, adibidez, uste du Johnny miseriaren beldur dela, konturatu gabe ezen Johnny beldur izan daitekeen gauza bakarra dela ez aurkitzea labanaren helmenean txuleta bat hura jateko gogoia etortzen zaionean, edo ohea logale denean, edo diru-zorroan ehun dolar ehun dolarren jabe izatea normala iruditzen zaionean. Johnny ez da abstrakzioen mundu batean mugitzen gu bezala; horregatik haren musikak, gaur gauean entzun dudana musika miragarri horrek, ez du abstraktutik ezer. Baina berak bakarrik egin dezake jotzen ari zen bitartean bildu duenaren zenbaketa, eta, ziur asko, beste zerbaitean ariko da dagoeneko, galduta ibiliko da aieru berri batean edo susmo berri batean. Haren konkistak amets bat bezalakoak dira, ahaztu egiten ditu esnatzean txalok bueltan berriz ekartzen dutenean, bera, urruti-urruti dabilena minutu eta erdiko bere ordu laurdena bizitzen.

Ekaitza betean tximistorratzari helduta bizitzea eta ezer gertatuko ez dela sinestea bezala litzateke. Handik lauzpabost egunera Art Boucayarekin topo egin dut auzo latindarreko *DuPonten*, eta ez du astirik galdu begiak zuri-zuri jartzeko eta berri txarrak niri iragartzeko. Lehenengo unean poz halako bat sentitu dut, ezinbestean gaiztotzat kalifikatu beharra daukadana, zeren eta ondotxo bainekien nik patxadak ezin zuela asko iraun; baina gero ondorioetan pentsatu dut eta Johnnyri diodan begikotasuna urdaila bihurrikatzen hasi zait; orduan bi koñak edan ditut Artek gertatutakoa deskribatzen zidan bitartean. Laburtuz, nonbait arratsalde horretan Delaunayk grabazio-saio bat prestatu zuen boskote berri bat aurkezteko, Johnny buru, Art, Marcel Gavoty eta Parisko bi mutil oso on pianoan eta baterian. Kontuak arratsaldeko hiruretan hasi behar zuen eta egun guztia eta gauaren zati bat zeukaten berotzeko eta gauza batzuk grabatzeko. Eta zer gertatu da. Bada gertatu da hasteko Johnny bostetan iritsi dela, Delaunay ezinegonez irakiten zegoenean, eta bere burua aulki batera jaurti ondoren esaten

du ondoezik dagoela eta mutilei eguna ez hondatzeko baizik ez dela etorri, baina ez duela jotzeko batere gogorik.

—Marcelen eta bion artean saiatu ginen atsedean pixka bat hartzeko Johnny konbentzitzen, baina ez zuen beste solasik, aurkitu dituen urnadun zelai batzuk baizik, eta jo eta ke urnekin ordu erdiz. Azkenean parkeren batean bildutako eta sakeletan gordetako hosto pila ateratzen hasi zen. Emaizta, estudioko zoruak lorategi botanikoa ematen zuela, enpleguak muturtuta zebiltzan batetik bestera, eta gainera ezer grabatu gabe; egizu kontu ingeniariak hiru ordu zeramatzala bere kabinan erretzen, eta Parisen hori asko da jadanik ingeniari batentzat.

“Onena probatzea zela esanez konbentzitu egin zuen azkenean Marcelek Johnny; jotzen hasi ziren biak eta guk astiro segitzen genien, ezer ez egin izanaren nekea uxatzeko, gehienbat. Aspalditxotik konturatu nintzen Johnnyk eskuineko besoan uzkurdura moduko bat zuela, eta jotzen hasi zenean ziur esaten dizut ikustea izugarria zela. Aurpegia grisa, zera, eta noiz edo noiz hotzikara bat bezala; hura lurrera noiz jausiko zen airean nengoen ni. Eta halako batean garrasi bat bota, banan-banan begiratzen digu guztioi, astiro-astiro, eta galdetzen digu ea zeren zain gauden *Amorousekin* hasteko. Badakizu, El Álamo doinu hori. Tira, Delaunayk keinu bat egiten dio teknikariari, ahalik eta hobekiena ateratzen gara denok, eta Johnnyk hankak irekitzen ditu, kulunkan dagoen batelean bezala ipintzen da, eta sekula entzun ez nuen moduan, zin dagizut, jotzen abiatzen da. Hori hiru minutuz, harik eta bat-batean zeruko harmonia bera hondatzeko gai den ufako bat bota, eta izkina batera doan arte gu denok martxa batean utzirik, buka genezala ahal genuen hobekienik.

“Baina orain dator okerrena, zeren eta amaitu genuenean, Johnnyk lehenik eta behin esan zuen dena deabrua bezala atera zela eta grabazio hark ez zuela ezertarako balio. Jakina, ez Delaunayk ez guk ez genion kasu egin, zeren eta akatsak Johnnyren bakarkakoak egunero entzuten dituzun mila bakarkako balio zuen. Gauza desberdin bat, ezin esplika diezazukedana... Entzungo duzu, imajinatuko duzunez ez Delaunayk ez teknikariek dute grabazioa suntsitzeko asmorik. Baina Johnny eroa bezala tematuta zegoen, kabinako beirak hautsiko zituela mehatxatuz baldin eta frogatzen ez bazioten

diskoa ezeztatua izan zela. Azkenean ingeniariak edozer gauza erakutsi zion eta konbentzitu egin zuen, eta orduan Johnnyk *Streptomycine* grabatzea proposatu zuen, zeina askoz hobeto eta aldi berean askoz okerrago atera baitzen, esan nahi dizut disko bikaina eta biribila dela, baina ez du jadanik Johnnyk *Amorousen* putz egin zuen gauza sinesgaitz hori”.

Hasperenka, Artek bere garagardoa edatez amaitu du eta goibel begiratu dit. Galdetu diot ea zer egin duen Johnnyk horren ondoren, eta esan dit, hostoei eta urnez betetako zelaiei buruzko bere kontuekin denak nazkatu ondoren, uko egin diola jotzen segitzeari eta estropezuka irten dela estudiotik. Marcelek saxoa kendu dio berriz gal edo zapaldu ez dezan, eta berararen eta frantses mutiletako baten artean hotelera eraman dute.

Zer egin dezaket, hura ikustera berehala joatea ez bada? Baina nolana ere biharko utzi dut. Eta biharamunean *Figaroko* polizia-albistegietan aurkitu dut Johnny, zeren eta gaeuz Johnnyk hoteleko gelari su eman baitio, nonbait, eta pasilloetan barrena korrika irten baita biluzik. Bai bera eta bai Dédée kalterik gabe atera dira, baina Johnny ospitalean dago zaintzapean. Albistea erakutsi diot emazteari eriondoan adoretzeko, eta segituan joan naiz ospitalera, non nire kazetari-kredentziales ez baitidate ezertarako balio izan. Gehienez jakin izan dudana da Johnny sukar-ametsetan ari dela eta hamar lagun erotzeko bezainbat marihuana daukala barruan. Dédée gajoa ez da gai izan eusteko, erre gabe segi zezala Johnny konbentzitzeko; Johnnyren andre guztiak haren konplize izaten amaitzen dute, eta ziur-ziur nago markesak eskuratu diola droga.

Tira ba, kontua da berehala joan naizela Delaunayren etxera *Amorous* lehenbailehen entzunaraz diezadan hari eskatzera. Auskalo *Amorous* ez ote den izango Johnny gizajoaren testamentua; eta kasu horretan, nire betebeharrak profesionala...

Baina ez, oraindik ez. Handik bost egunera Dédéek telefonoz hots egin dit esanez Johnny askoz hobeto dagoela eta ikusi egin nahi nauela. Nahiago izan dut hari kargu ez

hartu, lehenik denbora galduko dudala uste dudalako, eta bigarrenik Dédé gajoaren ahotsa teontzi pitzatu batetik ateratzen dela dirudielako. Berehala joatea hitzeman diot, eta esan diot ezen Johnny hobeto egotean beharbada bira bat antolatu ahal izango dela barrualdeko hirietan zehar. Dédé negarrez hasi denean eskegi dut hodia.

Johnny ohean eserita dago, zorionez lo dauden beste bi gaixo dauzkan areto batean. Nik hari ezer esan ahal izan baino lehen bere bi atzaparrekin burua harrapatu dit, eta askotan musu eman dit kopetan eta masailetan. Izugarri zargalduta dago, jaten asko ematen diotela eta jateko gogoz dagoela esan didan arren. Oraingoz gehien kezkatzen duena da jakitea ea mutilek gaizki hitz egiten ote duten berataz, ea bere krisiak norbaiti kalte egin ote dion, eta horrelako gauzak. Ia alferrikakoa da nik berari erantzutea, ondotxo baitaki kontzertuak ezeztatu egin direla eta horrek kalte egiten diela Arti, Marcelli eta gainerakoei; baina bitartean zerbait, tira, gauzak konponduko dituen zerbait gertatu dela sinetsiko balu bezala galdeetzen dit. Eta aldi berean ez nau engainatzen, zeren eta horren hondo-hondoan haren axolagabetasun berebizikoa baitago; Johnnyri bost axola zaio dena pikutara joan izana, eta nik gehiegi ezagutzen dut horretaz ez konturatzeko.

—Zer nahi duk esatea, Johnny. Gauzak hobeto atera zitezkean, baina hik dena alferrik galtzeko talentua duk.

—Bai, ezin diat ukatu —esan du nekatuta Johnnyk—. Eta dena urnen erruagatik.

Arten hitzez oroitu naiz, hari so geratu naiz.

—Urnez betetako zelaiak, Bruno. Urna ikusezin pila, zelai itzel batean lurperatuak. Ni han barrena nindoaan eta noiz edo noiz zerbaitekin estropezu egiten nian. Amestu egin dudala esango didak hik, e. Honela zuan, erreparatuik: noiz edo noiz urna batekin estropezu egiten nian, harik eta konturatu ninduan arte ezen zelai osoa urnez beteta zegoela, ezen milaka eta milaka urna zeudela, eta ezen urna bakoitzaren barruan hildako baten errautsak zeudela. Orduan oroitzen nauk makurtu egin nintzela eta azazkalekin lurra zulatzen hasi nintzela harik eta urnetako bat agerian geratu zuan arte. Bai, oroitzen nauk. Oroitzen nauk pentsatu nuela: “Hau hutsik egongo duk niri dagokidana delako”. Baina ez, hauts gris batez beteta zegoan, besteak halaxe zeudela nekian bezala,

ikusi ez nituen arren. Orduan... orduan hasi gintuan *Amorous* grabatzen, iruditzen zaidak.

Begiratu bat bota diot diskrezioz temperaturaren koaroiari. Normal samarra, nork esango luke. Medikua gazte bat atera agertu da, burua makurtuz ni agurturik, eta adorezko keinu bat egin dio Johnnyri, keinu ia kirolezko bat, guztiz mutil onarena. Baina Johnnyk ez dio erantzun, eta medikua joan egin denean atetik pasatu gabe, ikusi dut itxita zeuzkala Johnnyk ukabilak.

—Hori duk inoiz ulertuko ez dutena —esan dit—. Tximino bat luma-erratz batekin bezalakoak dituk, Kansas Cityko kontserbatorioko neskak bezalakoak, Chopin jo uste zutenak, atera itzak kontuak. Bruno, Camarillon beste hiru-ekin jarri nindutean gela batean, eta goizean egoiliar bat sartzen zuan, garbi-garbi eta arrosa-arrosa, bapo-bapo mutila. Kleenexen eta Tampaxen semea zirudian, sinetsidak. Izugarritzko mozolo puska moduko bat, nire ondoan eseri eta kemena ematen zidana, niri, hil egin nahi nuen honi, jadanik ez Lanengan ez inorengan pentsatzen zuen honi. Eta okerrena zuan tipoa mindu egiten zela nik kasurik egiten ez niolako. Bazirudian zain zegoela ni ohean noiz eseriko nintzen, haren aurpegi zuriaz eta haren ile ondo orraztuaz eta haren azazkal zainduz liluratuta, eta noiz hobetuko nintzen Lourdesera iritsi eta makulua bota eta saltoka irteten diren horiek bezala.

—Bruno, tipo hori eta Camarilloko beste tipo guztiak konbentzituta zeudean. Zertaz, jakin nahi duk? Ez zakiat, zin dagiat, baina konbentzituta zeudean. Berak zirenaz, suposatzen diat, berek balio zutenaz, beren diplomaz. Ez, ez duk hori. Batzuk apalak zituan eta ez zitean uste hutsezinak zirenik. Baina apalena ere seguru sentitzen zuan. Hori zuan sumintzen ninduena, Bruno, *baiek seguru sentitzeak*. Seguru zertaz, esadak pixka bat, nik bai bainekian, azal azpian deabrua baino izurri gehiago dauzkan gizajo honek, nahikoa kontzientzia bai bainian sentitzeko ezen dena jele bat bezalako zela, ezen dena dardarka zegoela inguruan, ezen ez zegoela pixka bat erreparatu baizik, nork bere burua pixka bat sentitu baizik, pixka bat isildu baizik, zuloak aurkitzeko. Atean, ohean: zuloak. Eskuan, egunkarian, denboran, airean: dena zuloz beteta, dena esponja, dena bere burua iragazten duen iragazki bat bezala... Baina haiek Ameriketako zientzia hituan, ulertzen,

Bruno? Soingainekoek zuloetatik babesten zitiztean; ez zitean ezer ikusten, bestek ikusitakoa onartzen zitean, ikusten ari zirela imajinatzen zitean. Eta noski ezin zitiztean zuloak ikusi, eta oso seguru zeudean beren buruaz, txit konbentzituta beren errezetez, beren xiringez, beren psikoanalisi madarikatuaz, beren ez errez eta ez edanez... A, handik abiatu ahal izan nintzen egunean, trenera igo ahal izan nintzenean, leihatilatik begiratu ahal izan nuenean nola dena atzerantz zihoan, dena apurtu egiten zen, ez zakiat ikusi ote duan nola paisaia hausten doan hura urruntzen ari dela begira hagoenean...

Gauloiseak erretzen ari gara. Koñak pixka bat edateko eta zortzi edo hamar bat zigarro erretzeko baimena eman diote Johnnyri. Baina ezagun du erre, haren gorputzak erretzen duela, bera beste zerbaitetan dagoela, putzutik irten nahi izan ez balu bezala. Galdetzen diot neure buruari zer ikusi ote duen, zer sentitu azken egunotan. Ez dut Johnny akuilatu nahi, baina bere kasa berbetan hasiko balitz... Erretzen ari gara, isilik, eta batzuetan Johnnyk besoa luzatzen du eta hatzak aurpegitik pasatzen dizkit, ni identifikatzeko bezala. Gero eskumuturreko bere ordulariarekin jolasten da, txeraz begiratzen dio.

—Jakintsuak direla uste ditek, horra kontua —dio kolpetik—. Liburu pila bildu eta jan egin dituztelako uste ditek jakintsuak direla. Barregura ematen zidak, berez mutil onak direlako eta ikasten dutena eta egiten dutena gauza oso zailak eta sakonak direla konbentzituta bizi direlako. Zirkuan gauza bera duk, Bruno, eta gure artean gauza bera duk. Jendeak uste dik gauza batzuk zailtan zailenak direla, eta horregatik txalo egiten zietek trapezistei, edo niri. Nik ez zakiat zer imajinatzen duten, norbera puskatan hausten ari dela ondo jotzeko, edo trapezistak tendoiak puskatzen dituela salto bat egiten duen bakoitzean. Berez, gauza benetan zailak oso-osoa bestelako batzuk dituk, jendeak une oro egin ahal uste duen gutzia. Begiratzea, adibidez, edo zakur bati edo katu bati ulertzea. Horiek dituk zailtasunak, zailtasun handiak. Bart gauean neure burua ispilutxo honetan begiratzea bururatu zitzaidan, eta ziurtatzen diat hain izugarri zaila zela non ia ohetik bota nian neure burua. Imajina ezak heure burua ikusten ari haizela; hori bakarrik aski duk ordu erdiz hotz geratzeko. Berez, tipo hori ez nauk ni, lehen unean garbi sentitu diat ez nintzela ni. Ustekabean, zeharka, harrapatu diat eta jakin diat ez nintzela ni. Sentitu egiten nian, eta zerbait sentitu egiten denean... Baina



Palm Beachen bezala duk, olatu baten gainean bigarrena jausten zaik, eta gero beste bat... Sentitu duan orduko bazatorrek bestea, hitzak zatozak... Ez, ez dituk hitzak, hitzetan dagoena duk, kola itsasgarri moduko hori duk, lerre hori. Eta lerre bazatorrek eta estali egiten hau, eta konbentzitzen hau hi haizela ispilukoa. Jakina, baina nola ez konturatu. Ni nauk-eta, nire ilearekin, ebakiondo honekin. Eta jendea ez duk konturatzen lerre dela onartzen duten gauza bakarra, eta horregatik iruditzen zaiek hain erraza ispiluan beren buruei begiratzea. Edo labanarekin ogi puska bat moztea. Hik moztu al duk ogi puskarik labanarekin?

—Tarteka egin izan diat —esan dut, alai.

—Eta lasai-lasai geratu haiz. Nik ezin diat, Bruno. Gau batean hain urruti jaurti nian dena, non labanak ia begi bat atera zioan ondoko mahaiko japoniarrari. Los Angelesen izan zuan, a zer izugarritzko nahaspila sortu zuan... Esplikatu nienean, preso eraman ninditean. Eta niri ordean erraz-erraza iruditzen zitzaidan haiei dena esplicitatzea. Orduan ezagutu nian Christie doktorea. Oso tipo jatorra, eta hori nik medikuei...

Esku bat airean zehar pasatu du, airea alde guztietatik ukituz, bere pausoarekin markatuta bezala utzirik airea. Irribarre egiten du. Bakarrik, bakar-bakarrik dagoelako irudipena daukat. Barne-huts bat bezala sentitzen naiz haren ondoan. Baldin eta Johnnyri bere eskua nigan zehar pasatzea bururatu-ko balitzaio, ebaki egingo ninduke gantza bezala, kea bezala. Beharbada, horregatik igurtziko dit aurpegia hatzekin, tentuz.

—Hor daukak ogia, zamauaren gainean —esaten du Johnnyk aireari begira—. Gauza gotor bat duk, ezin duk ukatu, kolore eder-eder batekin, perfume batekin. Ni ez naizen zerbait, zerbait desberdina, nigandik kanpo. Baina ukitzen badut, hatzak luzatzen baditut eta heltzen badiot, orduan bazagok zerbait aldatu egiten dena, ez al zaik iruditzen? Ogia nigandik kanpo zagok, baina hatzekin ukitzen diat, sentitu egiten diat, mundua hori dela sentitzen diat, baina nik uki badezaket eta senti badezaket, orduan ezin zitekek berez esan beste zerbait dela, edo, hik uste duk esan daitekeela?

—Maitea, milaka urte badituk bizardun mordo bat burua hausten ari dela problema ebazteko.

—Ogian egun-argia duk —murmurikatzen du Johnnyk, aurpegia estaliz—, eta ni ausartu egiten nauk ogia ukitzen, bitan ebakitzen, ahoan sartzen. Ez duk ezer gertatzen, bazakiat: horixe duk izugarria. Konturatzen al haiz ezer ez gertatzea izugarria dela? Ogia mozten duk, labana sartzen diok, eta denak lehen bezala jarraitzen dik. Nik ez diat ulertzen, Bruno.

Kezkatzen hasita nauka Johnnyren aurpegiak, haren asaldurak. Gero eta zailagoa da hari jazzaz, haren oroitzape-  
nez, haren asmoez mintzaraztea, hura errealitatera ekartzea. (Errealitatera; idatzi ahala nazka ematen dit. Johnnyk arrazoi du, errealitateak ezin du hau izan, jazz-kritikaria izateak ezin du errealitatea izan, zeren eta orduan norbait adarra jotzen ari baitzaigu. Baina aldi berean Johnnyri ezin zaio haria horrela jarraitu, denok erotuta amaituko dugulako).

Orain lo geratu da, edo gutxienez begiak itxi ditu eta lokartuarena egiten ari da. Berriz ere konturatzen naiz zein zaila suertatzen den Johnny zer egiten ari den jakitea, Johnny zer *den* jakitea. Ea lo dagoen, ea lokartuarena egiten duen, ea lo dagoela uste duen jakitea. Norbera askoz kanporago dago Johnnyz beste edozein adiskidez baino. Inor ezin daiteke izan arruntagoa, ohikoagoa, bizitza pobre baten zer-nolakoetara lotuagoa; alde guztietatik eskuragarria, ustez. Ez da inolako salbuespena, ustez. Edonor izan daiteke Johnny bezalakoa, baldin eta onartzen badu gizajo gaixotua eta biziotsua eta borondaterik gabea eta poesiaz eta talentuz betea izatea. Ustez. Nik, jenioak miresten pasatu baitut bizitza, Picasso, Einstein, edonork minutu batean zertu dezakeen zerrenda santua (eta Ghandi, eta Chaplin, eta Stravinsky), prest nago edonor bezala fenomeno horiek hodeietan ibiltzen direla eta haiekin ezertaz harritu behar ez dela onartzera. Desberdinak dira, hor ez dago beste konturik. Ordea, Johnnyren desberdintasuna sekretua da, haserregarria misteriotsua izatearen poderioz, ez duelako batere esplikaziorik. Johnny ez da jenio bat, ez du ezer aurkitu, milaka beltzek eta txurik bezala egiten du jazz, eta haiek denak baino hobeto egiten badu ere, aitortu beharra dago hori publikoaren, gustuen, moden mende dagoela zertxobait, denboraren mende, azken batean. Panassiék, adibidez, uste du Johnny txar-txarra dela, eta guk uste badugu ere txar-txarra Panassié dela, nolnahi ere gaia polemikarako zabalik dago.

Horrek guztiak frogatzen du Johnny ez dela beste munduko ezer, baina hori pentsatu orduko galdetzen diot neure buruari ea ez ote dagoen Johnnyrengan beste munduko zerbait (zeina bera baita lehenik ezagutzen ez duena). Ziu asko, barre galantak egingo lituzke esango baliote. Nik ondotxo dakit gauza hauetaz zer pentsatzen duen, zer bizi duen. Diot: gauza hauetaz zer bizi duen, zeren eta Johnnyk... Baina ez noa horra, neure buruari azaldu nahi niona da Johnnyrengandik gugana doan distantziak ez duela esplikaziorik, ez dela esplika daitezkeen desberdintasunetan funtsatzen. Eta iruditzen zait ezen bera dela horren ondorioak ordaintzen dituen lehena, ezen gu bezainbat duela berarengan horrek eragina. Gogoia ematen du berehala esateko Johnny aingeru bat bezalakoa dela gizonen artean, harik eta oinarri-oinarrizko zintzotasun batek esaldia irenstera behartzen duen arte, esaldiari polito bira ematera, eta aitortzera ezen beharbada hau gertatuko dela, alegia, Johnny gizon bat dela aingeruen artean, errealitate bat gu guztiok garen irrealitateen artean. Eta agian horregatik ukituko dit Johnnyk hatzekin aurpegia eta sentiaraziko nau hain dohakabe, hain garden, hain gauza gutxi, nire osasun onarekin, nire etxearekin, nire emaztearekin, nire prestigioarekin. Nire prestigioa, batik bat. Batik bat, nire prestigioa.

Baina betikoa da, irten naiz ospitaleetik eta kaleaz, orduaz, egin behar dudan guztiaz jabetu naizen orduko, tortilla bigunkiro jiratu da airean eta bira eman du. Johnny gizajoa, errealitateetik hain kanpo. (Hala da, hala da. Errazagoa zait hala dela sinestea, orain kafetegi batean eta ospitalera egindako bisitatik bi ordura nagoenean, gorago idatzi dudan guztia baino, neure burua kondenuatu bat bezala behaturik neure buruarekin gutxienez zertxobait zintzoa izatera).

Zorionez, sutearena O.K. konpondu da, zeren eta uste izatekoa izan zitekeenez markesak bereak egin baititu sutearena O.K. konpon zedin. Dédée eta Art Boucaya bila etorri zaizkit egunkarira, eta hirurok *Vixera* joan gara *Amorousen* grabazio jadanik ospetsua —nahiz oraindik sekretua— entzutera. Taxian Dédéeek gogo handirik gabe kontatu dit nola atara duen markesak Johnny sutearen nahaspilatik, zeina, gainerakoan, ez baitzen gauza handirik izan, koltxoi gardostu

bat eta rue Lagrangeko hotelean bizi diren aljeriar guztien izugarrizko izualdia besterik ez. Isuna (ordaindua jadanik), beste hotel bat (Ticak lortua jadanik), eta Johnny eriondoan dago ohe handi-handi eta eder-eder batean, baldeka hartzen du esnea eta *Paris Match* eta *New Yorker* irakurtzen ditu, Dylan Thomasen poemekiko eta nonahi arkatzez eginiko oharrekiko bere sakela-liburutxo ospetsua (eta herdoildua) tartean nahasiz batzuetan.

Albiste horiekin eta izkinako kafetegian koñak bat hartuta, audizio-aretoan instalatu gara *Amorous* eta *Streptomycyne* entzuteko. Artek argiak itzaltzeko eskatu du eta lurrean etzan da hobeto entzuteko. Eta orduan Johnny sartu, eta aurpegitik pasatu digu bere musika, hor sartu zaigu nahiz eta bere hotelean dagoen eta ohean sartuta, eta ordu laurden batez bere musikaz erraztatu gaitu. Ulertzen dut *Amorous* argitaratuko dutela pentsatzeak Johnny sumintzea, zeren eta edonor konturatzen baita hutsegiteez, perpaus amaiera batzuetako ufako zeharo hautemangarriaz, eta batez ere bukaerako eroriko basatiaz, nota gor eta labur hori, zeina iruditu baitzait hausten ari den bihotz bat, labana bat ogi batean sartzen (eta bera ogiaz mintzo zen duela egun batzuk). Baina Johnnyri, aldiz, itzuri egingo litzaioke guretzat izugarri ederra dena, norabide guztietarako ihesbidez, galdeketaz, esku-keinu etsituz betetako inprobisazio horretan irteera bila ari den antsietatea. Johnnyk ezin du ulertu (zeren eta berarentzat porrota dena guri bidea iruditzen baitzaigu, bide baten seinalea, behinik behin) ezen *Amorous* jazzaren unerik handienetako baten gisara geratuko dela. Berarengan dagoen artista amorruz sutan jarriko da bere desiraren imitazio hori entzuten duen bakoitzean, esan nahi zuen guztiaren imitazio hori entzuten duen bakoitzean, bera, bitartean, borrokan ari baitzen, zabuka, musikarekin batera listuak ahotik ihes egiten ziola, bakar-bakarrik, sekula baino gehiago, pertsegitzen ari den zera horren aurrean, berak zenbat eta gehiago pertsegitu ihesiago doakion zera horren aurrean. Bitxia da, hau entzun behar izan da, nahiz guztiak hona konbergitzen zuen, *Amorous*era, ni konturatzeko Johnny ez dela biktima bat, ez dela pertsegitu bat mundu guztiak uste duen bezala, nik neuk neure biografian aditzera eman dudana bezala (izan ere, ingelesezko edizioa atera berria da eta coca-cola bezala saltzen da). Orain badakit ezen hori ez dela horrela, ezen Johnnyk pertsegitu egiten duela pertsegitua

izan orde, ezen bizitzan gertatzen zaion guztia ehiztariaren gorabeherak direla eta ez animalia jazarriarenak. Inork ezin du jakin zer pertsegitzen duen Johnnyk, baina hala da, hor dago, *Amorousen*, marihuanan, hainbat eta hainbat gauzari buruzko haren mintzaldi absurdoetan, berriz gaixotzeetan, Dylan Thomasen liburutxoan, Johnny den gizagaixo erabatekoan eta bera handiarazten duen eta bera absurdo bizidun, besorik eta hankarik gabeko ehiztari, lo dagoen tigre baten atzetik korrika doan erbi bilakatzen duen guztian. Eta esatera behartuta nago azken finean *Amorousek* oka egiteko gogoa eman didala, horrek berataz libra ahal izango banindu bezala, nire kontra eta denen kontra berarengan korritzen duen guztiaz; besorik eta hankarik gabeko masa beltz itxuragabe hori, hatzak aurpegitik pasatzen dizkidan eta samurtuta irribarre egiten didan txinpantze erotu hori.

Artek eta Dédéek ez dute ikusten (iruditzen zait ez dutela ikusi nahi) *Amorousen* edertasun formal baizik. Dédéeri, gustatu ere, gehiago gustatzen zaio *Streptomicyne*, non Johnnyk bere ohiko aietasunaz inprobisatzen baitu, publikoak perfekziotzat ulertzen duenaz eta niri, berriz, Johnnyrengan arreta galtzea, musikari isurtzen uztea, beste leku batean egotea dela iruditzen zaidanaz. Kalean ordurako, galdetu diot Dédéeri zein diren bere asmoak, eta esan dit Johnny hoteletik irten ahal izango den orduko (oraingoz poliziak ez dio uzten) disko-marka berri batek berak nahi duen guztia grabaraziko diola eta oso ondo ordainduko diola. Artek dioenez, Johnny ideia bikainez beteta dago, eta berak eta Marcel Gavotyk Johnnyrekin batera “landuko” dituzte nobedadeak, nahiz azken asteen ondoren igartzen zaion Art duda-mudan dagoela, eta nik badakit, nire aldetik, elkarrizketetan dabilela agente batekin New Yorkera lehenbailehen itzultzeko. Nik sobera ulertzen dudana gauza, mutil gaixoa.

—Tica oso ondo portatzen ari da —esan du herraz Dédéek—. Jakina, hain erraza baita harentzat. Azken orduan iristen da beti, eta zorroa ireki besterik ez du eta dena konpondu. Nik, berriz...

Artek eta nik elkarri begiratu diogu. Zer esan geniezaioke? Johnnyren eta Johnny bezalakoak direnen inguruan jiraka pasatzen dute emakumeek bizitza. Ez da harritzekoa, ez dago emakumea izan beharrik Johnnyz erakarrita sentitzeko. Haren

inguruan distantzia galdu gabe jiratzea da zailena, satellite on bat, kritikari on bat bezala. Art ez zegoen orduan Baltimoren, baina gogoan ditut Johnny ezagutu nuen garaiak, Lanekin eta umeekin bizi zenean. Tamalgarria zen Lan ikustea. Baina Johnnyrekin bolada batean harremanetan egon ondoren, haren musikaren, haren eguneko izuen, sekula gertatu ez ziren gauzei buruzko haren azalpen pentsaezinen, haren samurraldi bat-batekoen inperioa ezarian-ezarian onartu ondoren, orduan batek ulertzen zuen zergatik zuen Lanek aurpegi hura eta nola ezinezkoa zuen beste aurpegi bat izatea eta aldi berean Johnnyrekin bizitzea. Tica beste gauza bat da, promiskuitatearen bidetik ihes egiten dio, bertan goxoko bizimodutik, eta gainera dolarra isatsetik helduta dauka eta hori metrailadore bat baino efikazagoa da, hori dio, behinik behin, Art Boucayak Tikarekin erresuminduta dagoenean edo buruko minez dabilenean.

—Zatoz lehenbailehen —eskatu dit Dédéek—. Berari zurekin hitz egitea gustatzen zaio.

Suteagatik (sutearen kausagatik, zeinaren konplize izango baita, seguru asko) hari sermoia egitea gustatuko zitzaidan, baina Johnny berari probetxuzko herritar bihurtu behar duela esatea bezain alferrikakoa litzateke. Oraingoan dena ondo doa, eta bitxia da (kezkarria da) ezen Johnnyren aldetik gauzak ondo dauden orduko ni izugarri pozik sentitzea. Ez naiz adiskide-erreakzio soil batean sinesteko bezain inozentea. Areago da geroratze gisako bat, arnasaldi bat. Ez dut horri azalpenik bilatzeko premiarik, sudurra aurpegiari itsatsita senti dezakedan bezain argi sentitzen dudanean. Amorrua ematen dit ni izateak sentitzen duen bakarra, denbora guztian pairatzen duena. Amorrua ematen dit Art Boucaya, Tica edo Dédéé ez baitira konturatzen ezen sufritzen duen, espetxera joaten den, bere burua hil nahi duen, koltxoi bati su ematen dion edo hotel bateko pasilloetan barrena biluzik korrika doan baikoitzean berengatik zerbaite ordaintzen ari dela Johnny, berengatik hiltzen ari dela. Jakin gabe, eta ez urkamendian hitzaldi handiak egiten dituztenek edo gizadiaren gaitzak salatzeko liburuak idazten edo munduko pekatuak garbitzen ari denaren itxuran pianoa jotzen dutenek bezala. Jakin gabe, saxofoi-jotzaile gizajoa, berba horrek lotsagarritik, gauza eskasetik, beste hainbat saxofoi-jotzaile gizajoren arteko batetik duen guztia-ekin.

Okerrena da ezen baldin eta honela jarraitzen badut azkenerako gehiago idatziko dudala neure buruaz Johnnyz baino. Ebanjelari baten antza hartzen ari naiz eta ez dit batere graziaz egiten. Etxera bueltan nentorren artean pentsatu dut, konfiantza berreskuratzeko beharrezko zinismoarekin, ezen Johnnyri buruzko nire liburuan bide batez baizik ez dudala aipatzen, diskrezioz, haren izatearen alderdi patologikoa. Ez zait beharrezkoa iruditu jendeari esplikatzeari ezen Johnnyk uste duela urnez betetako zelaietan zehar paseatzen dela edo pinturak mugitu egiten direla berak begiratzen dienean; marihuanaren mamuak, azken finean, desintoxikazio-sendaketa-rekin bukatzen direnak. Baina esan liteke Johnnyk bahian uzten dizkidala mamu horiek, beste hainbat musuzapi sakelari bezala ipintzen dizkidala, harik eta berreskuratzeko ordua iristen den arte. Eta uste dut neu naizela bakarria mamuok jasaten dituen, bizikide ditudana eta horien beldur dena; eta ez daki inork, ezta Johnnyk ere. Batek ezin dizkio horrelako gauzak aitortu Johnnyri, gizon benetan handi bati aitortuko lizkiok bezala, aholku baten trukean haren aurrean apalduz gauduz. Zer mundu da hau, fardo bat bezala zamatzea egokitu zaidana? Zer ebanjelari mota naiz ni? Johnnyrengan ez dago batere handitasunik, bera ezagutu nuenetik jakin dut, bera miresten hasi nintzenetik. Badu denbora puska bat horrek ez nauela harritzen, nahiz hasieran txundigarria iruditzen zitzaidan handitasun falta hori, aurreneko etorri berriari, eta batez ere jazzmanei, norbera aplikatzeko prest ez dagoen dimentsio bat delako, beharbada. Ez dakit zergatik (ez dakit zergatik) uste izan nuen une batean ezen Johnnyrengan bazezela berak egunez egun gezurtatzen duen handitasun bat (edo guk gezurtatzen duguna, eta berez ez da gauza bera; zeren eta, ondraduak izan gaitezenean, Johnnyrengan badago izan zitekeen beste Johnny baten mamua bezalako bat, eta beste Johnny hori handitasunez beteta dago; dimentsio horren falta modukoa antzematen zaio mamuari, nahiz negatiboki gogora ekartzen duen eta bere baitan daukan, hala ere). Hori diot zeren eta Johnnyk bizieraz aldatzeko egin dituen saioak, bere suizidio zapuztutik marihuanaraino, bera bezain handitasunik gabeko norbaitengandik espero izatekoak zirenak baitira. Uste dut gehiago miresten dudala horregatik, irakurtzen ikasi nahi duen txinpantzea delako benetan, aurpegiarekin pareta jotzen duen gizagaixo bat, eta ez du bere burua konbentzitzen, eta

berriz hasten da. A, baina egun batean txinpantzea irakurtzen jartzen baldin bada, zer masa-hondamena, zer nahaste-borrastea, zer salba dadila ahal duena, ni lehenik. Ikaragarria da handitasun apurrik gabeko gizon batek bere burua paretaren kontra horrela jaurtitzea. Guztiok salatzen gaitu bere hezurren talkarekin, txiki-txiki egiten gaitu bere musikaren lehenengo esaldiarekin. (Martiriak, heroiak, ados: bat seguru dago haiekin. Baina Johnny!).

Sekuentziak. Ez dakit hobeto esaten, brist eta brast gizon baten bizitzan sekuentzia ikaragarri edo ergelak antolatzen direlako nozio bat bezalakoa da, jakin gabe zein legek, lege sailkatuetatik at, erabakitzen duen telefono-dei jakin baten ondoren berehala Auvernian bizi den gure arreba etorriko dela, edo esnea sutara isuriko dela, edo balkoi batetik mutil bat auto baten azpian ikustera goazela. Futbol taldeetan eta zuzendaritza batzordeetan bezala, irudi luke patuak ordezeko batzuk izendatzen dituela beti, badaezpada ere titularrak huts egiten badute. Eta, hala, gaur goizean, Johnny Carter hobeto eta pozik zegoela jakitearen pozak oraindik irauten zidanean, urgentziaz dei egiten didate telefonoz egunkarira, eta deika ari dena Tica da, eta albistea da Bee Chicagon hil berri dela, Lanen eta Johnnyren alaba gazteena, eta, jakina, Johnny erotuta bezala dagoela eta ona litzatekeela ni adiskideei esku bat ematera joatea.

Berriz igo dut hotel bateko eskailera bat —eta hainbeste dira Johnnyrekiko nire adiskidetasunean— eta aurkitu ditut Tica tea hartzen, Dédéé toalla bat bustitzen, Art, Delaunay eta Pepe Ramírez Lester Youngen azken berriez ahapeka hizketan, eta Johnny geldi-geldirik ohean, toalla bat bekokian eta itxura zeharo lasaia eta ia destainaria. Berehala sartu dut patrikan pasamoduko aurpegia, eta mugatu naiz Johnnyri eskua tinko estutzera, zigarro bat piztera eta itxarotera.

—Bruno, hemen min diat —esan du Johnnyk handik pixka batera, bihotzaren leku konbentzionallean ukituz—. Bruno, nire eskuan harritxo txuri bat bezalakoa zuan neskatoa. Eta ni ez nauk ezer zaldi hori gaixo bat baino, eta inork ez ditik, inork ez, nire begietako malkoak garbituko.

Hori guztia solemnitaterik esana, errezitatuz ia, eta Tica Arti begira, eta biak elkarri barkaberatasunezko keinuak eginez, Johnnyk toalla bustiarekin aurpegia estalita duela eta ezin ikusi



dituela aprobetxatuz. Niri neuri higuina ematen didate esaldi merkeek, baina Johnnyk esan duen hori guztiari, nonbaiten irakurrita daukadala iruditu izateaz gainera, berbetan hasia izango litzatekeen maskara bat balitz bezalako itxura hartu diot, hori bezain hutsa, hori bezain alferrikakoa. Dédée beste toalla batekin etorri da eta apositua aldatu dio, eta tartean ozta-ozta ikusi ahal izan dut Johnnyren aurpegia eta gris hauskara ikusi dut, ahoa okertuta eta begiak zimurto arte estututa. Eta Johnnyrekin beti bezala, batek espero zuenaren oso bestela gertatu dira gauzak, eta Pepe Ramírez, zeinak ez baitu askorik ezagutzen Johnny, ezustearen efektuaren pean dago oraindik eta eskandaluarenean uste dut nik, zeren eta handik pixka batera Johnny ohean eseri baita eta astiro iraintzeari ekin dio, hitz bakoitza murtxikatzen, eta ziba bat bezala gero askatzen, *Amorouse*n grabazioko arduradunak iraintzeari ekin dio, inori begiratu gabe baina gu denok zomorroak kartoi batean bezala iltzatuz bere hitzen obszenitate ikaragarriarekin soil-soilik, eta bi minutuz egon da horrela *Amorouse*ko guztiak iraintzen, hasi Artengandik eta Delaunayrengandik, nigandik pasatuz (nahiz ni...) eta amaituz Dédéerengan, Kristo ahalguztidunean eta denetaz erditu zen putarengan salbuespenik gabe. Eta hori izan da funtsean, hori eta harritxo txuriarena, Beeren hilotza, Chicagon neumoniaz hildakoarena.

Hamabost egun huts pasatuko dira; lan pila, kazetaritzako artikuluak, bisitak han-hemen: kritikari baten bizitzaren laburpen on bat, maileguz, besteren nobedadeez eta erabakiez, bakarrik bizi daitekeen gizon horrena. Horretaz ari garelara gau batean egongo gara Tica, Baby Lennox eta ni Café de Floren, *Out of Nowhere* poz-pezik marmarrean kantatzen eta Billy Taylorren piano bakarkako bat komentatzen, hiruroi ona iruditzen baitzaigu, eta batez ere Baby Lennox, zeina gainera Saint-Germain-des Présen modara jantzi baita eta ikusi beharra dago nola geratzen zaion. Babyk Johnny ikusiko du agertzen bere hogeitau urteen liluramendurekin, eta Johnnyk ikusi gabe begiratuko dio eta aurrera jarraituko du, beste mahai batera bakarrik eseri arte, zeharo mozkortuta edo lotan. Ticaren eskua sentituko dut belaunean.

—Ikusten, bart gauean berriz erre du. Edo gaur arratsaldean. Emakume hori...

Gogorik gabe erantzun diot Dédée beste edozein andre bezain erruduna dela, berarengandik hasita, dozenaka bider erre baitu Johnnyrekin eta berriz erreko baitu gogoak ematen dionean. Alde egiteko eta bakarrik egoteko nahi bizia etorriko zait, Johnnyrengana hurbiltzea, harekin eta haren ondoan egotea, ezinezkoa den guztietan bezala. Ikusiko dut Johnny hatzaz mahaian marrazkiak egiten, zerbitzariari begira geratzen hark zer edan behar duen galdetzen dionean, eta azkenean Johnnyk gezi moduko bat marraztuko du airean eta bi eskuekin helduko dio izugarri astuna balitz bezala, eta beste mahaietan jendea dibertitzen hasiko da, diskrezio handiz, Floren dagokion bezala. Orduan Ticak esango du: “Kaka”, Johnnyren mahaira joango da, eta zerbitzariari agindu bat eman ondoren Johnnyri belarrira hitz egiten ariko zaio. Zer esanik ez du ezen Babyk berehala fidatuko dizkidala bere itxaropenik maiteenak, baina nik lausoki esango diot gaur gauean lasai utzi beharra dagoela Johnny eta neska txintxoak goiz joaten direla ohera, ahal baldin bada jazz kritikari baten konpainian. Babyk adeitasunez barre egingo du, bere eskuak ilea laztanduko dit, eta gero lasai geldituko gara aurpegia berun-zuriko geruza batekin estaltzen duen eta begiak eta baita ahoa ere berdez margotzen dituen neskaxa pasatzen ikusten. Babyk esango du ez zaiola hain gaizki iruditzen, eta nik eskatuko diot kantatzeko niri ahapeka Londresen eta Estokolmon ospea ematen ari zaizkion blues horietako bat. Eta gero *Out of nowhere* itzuliko gara, gaur gauean etengabe pertsegitzen baikaitu berun-zurikoa eta begi berdeetakoa ere litzatekeen zakur batek bezala.

Johnnyren boskote berriko mutiletako bi hortik pasatuko dira, eta gaur gauean gauza nola ibili den haiei galdetzeko aprobeztatuko dut; jakingo dut horrela ezen Johnnyk ia ezin izan duela jo, baina jo duenak John Lewisen ideia guztiak bilduta balio zuela, azken hori ideia bat izateko gai dela suposatuz, zeren eta, mutiletako batek esan duen bezala, beti eskura izaten duena zulo bat tapatzeko notak izaten da, zeina ez baita gauza bera. Eta nik galdetuko diot artean neure buruari ea noraino eutsi ahal izango dion Johnnyk, eta batez ere Johnnyrengan sinesten duen publikoak. Mutilek ez dute garagardo bat onartuko, Baby eta biok bakarrik geratuko gara berriz, eta azkenean amore emango diet haren galderei eta es-

plikatuko diot Babyri, zeinak zinez merezi baitu bere ezizena, zergatik dagoen Johnny gaixorik eta jota, zergatik boskoteko mutilak gero eta nazkatuago dauden, zergatik kontua lehertu egingo den hauetako batean, San Franciscan, Baltimoren eta New Yorken dozena erdi bat aldiz jadanik lehertu den bezala.

Auzoan jotzen duten beste musikari batzuk sartuko dira, eta batzuk Johnnyren mahaira joan eta agurtu egingo dute, baina berak urrutitik bezala begiratuko die, aurpegi izugarri ergel batekin, begiak heze eta otzan, ahoa ezpainetan distirutzen dion listua edukitzeko ezgai. Dibertigarria izango da Ticaren eta Babyren maneiu bikoitzari begira egotea, Tica gizonengan duen nagusitasunaz baliatuz azalpen azkar batez eta irribarre batez haiek Johnnyrengandik urruntzeko, Babyk niri belarrira puzka zenbat miresten duen Johnny eta zein ona litzatekeen hura erietxe batera eramatea desintoxikatzen, eta hori guztia araldian dagoelako besterik gabe eta Johnnyrekin gau honetan bertan oheratu nahi lukeelako, zeharo ezinezko gauza, bestalde, ikus daitekeenez, eta aski pozten nauena. Baby ezagutzen dudanez gero gertatzen zaidan bezala, haren izterrak laztantzea zer ona litzatekeen pentsatuko dut eta leku lasaiago batera trago bat hartzera joatea hari proposatzeko zorian egongo naiz (berak ez du nahiko eta funtsean nik ere ez, zeren eta beste mahai horrek lotuta eta nahigabetuta edukiko baikaitu) harik eta bat-batean, gertatu dena iragarriko duen ezer gabe, ikusiko dugu Johnny poliki-poliki altxatzen, guri begiratzen eta gu ezagutzen, gugana etortzen —demagun nigana, zeren eta Baby ez baita aintzat hartzekoa— eta mahaira iristean naturaltasun osoz pixka bat makurtuko da, plateretik patata frijitu bat hartzera doana bezala, eta ikusiko dugu Johnny nire aurrean belaunikatzen, naturaltasun osoz jarriko da belauniko eta begietara begiratuko dit, eta negarrez ari dela ikusiko dut nik, eta hitzik gabe jakingo dut Bee txikiagatik ari dela Johnny negarrez.

Nire erreakzioa hain naturala da, Johnny altxatu nahi izan dut, hura barregarri geratzea saihestu, eta azkenean barregarri ni neu geratu naiz, zeren eta ez baitago ezer penagarriagorik dagoen bezala oso ondo dagoen eta gogoak ematen dion jarreran primeran sentitzen den beste gizon bat mugiarazten ahalegintzen ari den gizona baino, hala bada Floreko bezeroak, ez baitira gauza txikiengatik asaldatzen, adetasun gutxirekin begiratu didate, nahiz gehienek ez dakiten beltz be-

launikatu hori Johnny Carter dela begiratu didate aldare batera igo eta Kristori guruzetik ateratzeko tiraka egingo liokeen norbaiti jendeak begiratuko liokeen bezala. Johnny izan da hori aurpegiratu didan lehena, isilean negar egite hutsarekin begiak altxatu eta begiratu egin dit, eta horrekin eta bezeroen zentsura begien bistakoarekin ez dut izan beste erremedio-rik Johnnyren aurrean esertzea baino, eta bera baino okerrago sentitu naiz, beste edonon egon nahi izan dut aulki horretan eta Johnny belauniko nire aurrean edukita egon ordez.

Gainerakoa ez da hain txarra izan, nahiz ez dakidan zenbat mende igaro diren inor mugitu gabe, malkoek Johnnyren aurpegian behera isurtzeari utzi gabe, haren begiak etengabe nireetan tinko ezarriak egon gabe, ni, bitartean, saiatzen ari bainintzen hari zigarro bat eskaintzen, niretzat beste bat pizten eta Babyri ulermenezko keinu bat egiten, korrika ateratzeko edo bera ere negarrez hasteko zorian bai baitzegoen, nire aburuz. Beti bezala, Tica izan da nahaspila konpondu duena, bere patxada handiarekin gure mahaira eseri baita, Johnnyren ondora aulki bat hurreratuz eta hari eskua sorbaldan jarriz, behartu gabe, harik eta azkenean Johnny apur bat tentetu den arte, eta pasatu da ikaragarrikeria horretatik adiskide eseriaren jarrera egokira, soilik belaunak zentimetro batzuk altxatuz, besterik gabe, eta haren ipurmamien eta zoruaren artean (gurutzea esan behar nuen, hau zinez kutsagarria da) aulki baten erosotasun txit onartuari tartean jartzen utziz. Nekatu egin da jendea Johnnyri begira egoteaz, bera negar egiteaz, eta gu txakurrak bezala sentitzeaz. Pintore batzuek aulkiei dieten txera esplikatu diot kolpetik neure buruari; objektu zoragarri bat, lore bat, perfume bat, gizonek bere hirian duten ordenaren eta zintzotasunaren tresna perfektua iruditu zait bat-batean Floreko aulkietako edozein.

Johnnyk musuzapi bat atera du, barkamena eskatu du gauza bortxatu gabe, eta Ticak kafe doble bat ekarrarazi du eta edanarazi egin dio. Baby zoragarri egon da, Johnnyri dagokionez bere ergelkeriari kolpetik uko eginez, *Mamie's blues* ahapeka kantatzen hasi da, nahita ari zelako irudipena sorrarazi gabe, eta Johnnyk begiratu egin dio eta irribarre egin du, eta iruditzen zait Ticak eta nik aldi berean pentsatu dugula ezen Beeren irudia astiro-astiro galtzen ari zela Johnnyren begien hondonan, eta ezen Johnnyk berriz ere onartzen zuela gure ondora pixka batean etortzea, hurrengo ihesaldia

arte gure lagunartean egotea. Beti bezala, txakur bat bezala sentitzen naizen ueña pasatuxea den orduko, Johnnyrengan dudan nagusitasunak aukera eman dit neure burua barkabera agertzeko, denetik pixka bat berriketagai hartzeko, eremu pertsonalegietan sartu gabe (izugarria zatekeen Johnny aulkitik lerratzen ikustea, berriz ere...), eta zorionez Tica eta Baby aingeruak bezala portatu dira eta Floreko jendea berrituz joan da ordubeten zehar, eta, beraz, goizeko ordu bateko bezeroek ez dute susmatu ere egin gertatu berria zena, nahiz berez ez den gauza handirik gertatu, ondo pentsatuz gero. Baby joan da lehenik (neska ikastuna da Baby, bederatzietarako entsaiatzen ariko da Fred Callenderekin arratsaldean grabatzeko) eta Ticak bere hirugarren baso koñaka edan du eta gu etxera eramatea eskaini digu. Orduan Johnnyk ezetz esan du, nahiago zuela nirekin berriketan jarraitu, eta oso ondo zegoela iruditu zaio Ticari eta joan egin da, ez aurrenik denon errondak ordaindu gabe, markesa bati dagokion bezala. Eta Johnnyk eta nik chartreuse kopatxo bat edan dugu, adiskideen artean ahultasun horiek zilegi direnez, eta Saint-Germain-des-Présen zehar ibiltzen hasi gara, zeren eta Johnny tematu egin baita ibiltzeak on egingo diola eta ni ez naiz egoera horietan kideak bertan behera uzten dituen horietakoa.

Rue de l'Abbayen zehar Fustenberg plazaraino jaitsiz goaz, zeinak Johnnyri aita bitxiak zortzi urterekin nonbait oparitu zion jostailuzko antzoki bat arriskutsuki oroitarazten baitio. Rue Jacobera eramaten saiatzen naiz, oroitzapenek Johnny Beerengana berriz ekarriko ote duten beldurrez, baina esan liteke gauek falta den tartean itxi egin duela Johnnyk atal hori. Lasai dabil, zabu egin gabe (beste batzuetan ikusi izan dut Johnny kalean estropezuka, eta ez mozkortuta ego-teagatik; erreflexuetan ondo ez dabilkion zerbait) eta gaueko beroak eta kaleetako isiltasunak on egiten digute bioi. Gauloises erretzen ditugu, oharkabean ibaira joan gara, eta Quai de Contiko liburu-saltzaileen latorrizko kutxa baten aurrean edozein oroitzapenek edo ikasleren baten txistu joak Vivaldi-ren doinu bat dakarkigu ahora eta biok hori kantatzen jartzen gara sentimendu eta gogo bero handiz, eta Johnnyk esaten du ezen baldin eta bere saxoa baleuka Vivaldi jotzen pasatuko lukeela gau osoa, niri esajeratua iruditzen zaidan arren.

—Tira, Bachen eta Charles Ivesen pixka bat ere joko nikek —esaten du Johnnyk, etorkor—. Ez zakiat zergatik ez

zaien frantsesei Charles Ives interesatzen. Ezagutzen dituk haren kantua? Lehoinabarrarena, lehoinabarraren kantua ezagutu behar huke. *A leopard...*

Eta lehoinabarraz luze eta zabal ari da haren tenor-ahots ahulaz, eta zer esanik ez dago kantatzen dituen esaldi asko ez direla inolaz ere Yvesenak, nahiz Johnnyri bost axola zaion zerbait ona kantatzen ari dela ziur dagoen artean. Pretil gainean eseritzen gara azkenean, rue Gît-le-Coeuren aurrean eta beste zigarro bat erretzen dugu, zeren eta gaua zoragarria baita eta hemendik pixka batera tabakoak kafetegi batean garagardoa edatera behartuko baikaitu eta hori alde zurretik gustatzen zaigu Johnnyri eta niri. Ia ez diot arretarik jartzen nire liburua lehen aldiz aipatzen duenean, zeren eta berehala itzuli baita Charles Ivesez berba egitera eta esatera nola dibertitu izan den Ivesen doinuak bere diskoetan sarritan aipatuz, inor konturatu gabe (Ives bera ere ez, suposatzen dut), baina handik gutxira liburuaren kontuan pentsatzen jartzen naiz eta Johnny gaira ekartzen ahalegintzen naiz.

—O, orrialde batzuk irakurri ditiat —dio Johnnyk—. Ticarenean asko hitz egiten zitean hire liburuz, baina nik ez nian izenburua ere ulertzen. Atzo Artek ingelesezko edizioa ekarri zidaan eta orduan gauza batzuen berri izan nian. Oso ondo zagok hire liburua.

Kasu horietan ohikoa den jarrera hartzen dut, apaltasun gogogabeko itxura bat interes-dosi jakin batekin nahasiz, haren iritziak agerian utziko balit bezala —niri, egileari— nire liburuari buruzko egia.

—Ispilu bat bezalako duk —dio Johnnyk—. Hasieran uste nian norberataz idazten dutena irakurtzea nork bere buruari begiratzea bezalakoxea zela gutxi gorabehera eta ez ispiluan. Asko miresten ditiat idazleak, sinestezina duk zer gauzak esaten dituzten. *Bebop*aren jatorriari buruzko zati hori guztia...

—Baltimoren kontatu hidaana hitzez hitz transkribatu baizik ez nian egin —esaten dut, zertaz jakin gabe nire burua defendatuz.

—Bai, dena zagok, baina berez ispilu bat bezalako duk —setatzen da Johnny.

—Zer gehiago nahi duk? Ispiluak fidelak dituk.

—Gauza batzuk falta dituk, Bruno —dio Johnnyk—. Hi ni baino askoz jakitunago hago, baina gauza batzuk falta direla iruditzen zaidak.

—Niri esateaz ahaztuko zitzaizkianak —erantzuten dut, erretxindu samarturik. Tximino basati hau gai da... (Delaunayrekin hitz egin beharko da, penagarria litzateke adierazpen zuhurtziagabe batek ahalegin kritiko osasuntsu bat zapuztea, zeinak... *Adibidez, Lanen soineko gorria* —esaten ari da Johnny. Eta, nolana ere, gaur gaueko nobedadeak aprobeztatzea edizio berri bati gehitzeko; ez legoke gaizki. *Zakur usain moduko bat zian* —esaten ari da Johnny— *eta bori duk disko borretan balio duen bakarra*. Bai, adi entzun eta bizkor ekin, zeren eta beste jende batzuen eskuetan gezurtatze posible horiek ondorio penagarriak izango bailituzkete. *Eta erdiko urna, bandiena, bauta ia urdin batez betea* —esaten ari da Johnny— *eta nire arrebak zeukan bauta-kutxatila baten antz bandikoa*. Haluzinazioez harago joaten ez den artean, okerreana litzateke funtsezko ideiak gezurtatzea, hainbeste laudorioko sistema estetikoa...—. *Eta gainera coola ez duk ezta kasualitatez ere bik idatzi duana* —esaten ari da Johnny. Erne).

—Nola ez dela nik idatzi dudana? Johnny, ondo zagok gauzak aldatzea, baina ez ziren sei hilabete pasatuko hik...

—Orain dela sei hilabete —dio Johnnyk, pretiletik jaitsez eta ukondoez bermatuz, burua esku artean atsedenean uzteko—. *Six months ago*. A, Bruno, zer jo nezakeen nik orain mutilak banitu... Eta izan ere: oso asmotsua saxoaz eta sexuaz idatzi duana, oso polita hitz jokoa. *Six months ago: Six, sax, sex*. Ederraren ederra, horra bada, Bruno. Madarikatua izan hadi, Bruno.

Ez naiz hasiko berari esaten bere adin mentalak ez diola uzten ulertzen ezen hitz joko xalo horrek ideia-sistema sakon samar bat estaltzen duela (Leonard Featheri ezinago zehatza iruditu zitzaion New Yorke azaldu nionean) eta jazzaren paraerotismoak eboluzionatu egiten duela *washboarden* garaitik, etab. Betikoa da, kritikariak ni neu aitortzeko prest nagoena (pribatuan, idazten ari naizen honetan) baino askoz beharrezkoagoak direla pentsatu ahal izateak poztu egiten nau bat-batean, zeren eta sortzaileak, musikaren asmatzailearengandik Johnnyrenganaino sail alu osotik

pasatuz, ez baitira gai beren obraren ondorio dialektikoak ateratzeko, idazten edo inprobisatzen ari direnaren oinarriak eta transzendentzia postulatzeko. Oroitu egin behar nuke horretaz kritikari bat ez beste ezer ez izateak pena ematen didan depresio-uneetan. —*Izarraren izena Absenta da* — esaten ari da Johnny, eta kolpetik haren beste ahotsa entzuten dut, bera auskalo non dagoeneko ahotsa... nola esan hau, nola deskribatu Johnny bere aldean dagoenekoa, berriz bakarrik jadanik, jo eta pasata jadanik? Kezkatuta, pretiletik jaisten naiz, gertutik begiratzen diot. Eta izarraren izena Absenta da, ez dago zer eginik horrekin.

Izarraren izena Absenta da —dio Johnnyk, bere bi eskuentzat berba eginez—. Eta haien gorputzak hiri handiko plazetan jaurtiak izango dira. Orain dela sei hilabete.

Inork ikusten ez banau ere, inork ez badaki ere, izarrentzat jasotzen ditut sorbaldak (izarraren izena Absenta da). Betikora itzuli gara: “Hau bihar jotzen ari naiz”. Izarraren izena Absenta da eta haien gorputzak orain dela sei hilabete jaurtiak izango dira. Hiri handiko plazetan. Jo eta pasata, urrun. Eta ni odola begian, liburuaz beste ezer esan nahi izan ez didalako, besterik gabe, eta berez ez naiz iritsi jakitera zer pentsatzen duen hainbat milaka *fan* bi hizkuntzatan irakurtzen ari diren liburuaz (oso laster hirutan, eta aipatzen ari dira jadanik espainierazko edizioa, badirudi Buenos Airesen ez direla tangoak bakarrik jotzen).

—Soineko zoragarria zuan —dio Johnnyk—. Ez diok igarriko nola geratzen zitzaioan Lani, baina hobe izango diat whisky baten aurrean esplikatzea, baldin eta dirurik badaukak. Dédéek hirurehun libera eskas utzi zizkidak.

Burlaz barre egiten du, Senari begira. Berak zurruta eta marihuana eskuratzen jakingo ez balu bezala. Esplikatzen hasi zait Dédée oso ona dela (eta liburuaz ezer ez) eta ontasunez egiten duela, baina zorionez Bruno kidea dago (liburu bat idatzi duena, baina ezer ez) eta arabiar auzoko kafetegi batera esertera joatea izango da onena, han lasai uzten baitute norbera, baldin eta ikusten bada Absenta izarrekoa dela nolabait (hori nik pentsatzen dut, Saint-Séverinen aldetik sartzen ari gara eta goizeko ordu biak dira, nire emaztea esnatu, eta kafesnearekin batera esango didan guztia entsaiatzen duen ordua). Horrela gertatzen da Johnnyrekin, horrela edaten dugu koñak



merke nazkagarri bat, horrela bikoizten dugu dosia eta poz-  
-pozik sentitzen gara. Baina liburuaz ezer ez, soil-soilik zisne  
tankerako hauts-kutxatila, izarra, gauzen pusketak, esaldi pus-  
ketetatik, begirada pusketetatik, irribarre pusketetatik, mahai  
gaineko listu-tantetatik, edalontziaren (Johnnyren edalontzia-  
ren) ertzetan itsatsitakoetatik pasatuz doazenak. Bai, badira  
uneak non bera jadanik hilik egotea nahi bainukeen. Supo-  
satzen dut askok nire kasuan gauza bera pentsatuko luketela.  
Baina nola etsiko dut esan nahi ez didana berarekin eramanez  
Johnny gaur gauean hilko dela, heriotzatik ehizatzen segituko  
duela, jo eta pasa eginda segituko duela (nik ez dakit jadanik  
hau guztia nola idatzi), nahiz bakea, katedra, tesi ukaezinek  
eta ondo gidatutako ehorzketek ematen duten aginpide hori  
ekarri horrek niri.

Noiz edo noiz Johnnyk mahai gaineko atabalatze luze  
bat eteten du, begiratu egiten dit, keinu ulertezin bat egiten  
du eta berriz atabalatzen du. Arabiar gitarra-jotzaile batekin  
etortzen ginen garaietatik ezagutzen gaitu kafetegiko nagusiak.  
Badu denbora puska bat Ben Aifak lotara joan nahiko lukeela,  
bakarrak gara baratxuri eta koipedun pastelen usaina duen  
kafetegi zoldatsuan. Logaleak jota nago ni ere, baina suminak  
eutsi egiten dit, amorru sor bat da eta ez doa Johnnyren aurka,  
areago dirudi arratsalde oso batean maitasuna egin ondoren  
dutxa baten premia sentitzea, zaharmindu bihurtzen eta ha-  
sierako zera hori argiegi erakusten hasia den hori urak eta  
xaboiak eramateko premia sentitzea. Eta Johnnyk erritmo setati  
bat markatzen du mahai gainean, eta tarteka ahopeka kanta-  
tzen du, niri ia begiratu gabe. Oso gerta liteke berak liburuaz  
iruzkinik berriz ez egitea. Gauzek batetik bestera daramate  
Johnny, bihar emakume bat izango da, beste edozein nahas-  
pila, bidaia bat. Berari disimuloz ingelesezko edizioa kentzea  
litzateke zuhurrena, eta horretarako Dédéerekin mintzatzea  
eta beste hamaika mesederen truk hari mesedea eskatzea.  
Absurdoa da kezka hau, ia haserre hau. Ez zegoen Johnny-  
ren aldetik inolako gogo berorik espero izaterik; berez ez  
zitzaidan bururatu liburua irakurriko zuenik. Ondotxo dakit  
liburuak ez dioela egia Johnnyz (gezurrik ere ez du esaten),  
Johnnyren musikara mugatzen da, aitzitik. Diskrezioz, onta-  
sunez, ez dut biluzian erakutsi nahi izan haren eskizofrenia  
sendaezina, drogaren atzealde likitsa, biziera penagarri horren  
promiskuitatea. Oinarrizko lerroak erakustea inposatu diot

neure buruari, benetan axola duena azpimarratuz, Johnnyren arte paregabea. Zer gehiago esan nezake? Baina, beharbada, hortxe edukiko dut neure zain, beti bezala zelatan zerbaiten zain, denok minduta ateratzen gareneko jauzi absurdo horietako bat emateko uzkurtuta. Eta haren musikaren arrazoi azkena funtsatzeko erabili ditudan oinarri estetiko guztiak, alde guztietan hainbeste laudorio ekarri didan jazz garaikidearen teoria handia noiz gezurtatuko hortxe edukiko dut beharbada Johnny neure zain.

Zintzoki, zer axola dit haren bizitzak? Ni segitzeko gai ez naizen jokabide horri (demagun ez dudala segitu nahi) Johnny amore emanik ibiltzea eta azkenerako nire liburuaren ondorioak gezurtatzea da kezkatzen nauen gauza bakarra. Hor barrena bota dezala ezen nire baieztapenak faltsuak direla, ezen bere musika beste gauza bat dela.

—Aizak, liburuan gauza batzuk falta zirela esan duk arestian.

(Adi, orain).

—Gauza batzuk falta direla, Bruno? A, bai, gauza batzuk falta direla esan diat. Begira, ez duk Lanen soineko gorria bakarrik. Hor zaudek... Benetan urnak izango dituk, Bruno? Bart gauean berriz ikusi nitian, zelai itzel bat, baina ez zeudean jadanik hain lurperatuak. Batzuek idazkunak eta marrazkiak zeuzkatean, erraldoiak ikusten zituan, zineman bezala kaskodunak, eta eskuetan garrote handi-handi batzuk. Izugarria duk urna artean ibiltzea eta beste inor ez dagoela jakitea, haien artean bila dabilen bakarra ni naizela jakitea. Ez nahigabetu, Bruno, berdin zio hori dena jartzea ahaztu bazaik. Baina, Bruno —eta dardarka ez dagoen hatz bat altxatzen du— ahaztu, nitaz ahaztu haiz.

—Tira, Johnny.

—Nitaz, Bruno, nitaz. Eta ez duk hire errua ni ere jotzeko gai ez naizen hura hik ezin idatzi izana. Hor zehar esaten duanean nire benetako biografia nire diskoetan dagoela, nik bazakiat hori benetan uste duala eta gainera oso ondo ematen dik, baina ez duk horrela. Eta baldin eta nik neuk jakin ez badut behar nuen bezala jotzen, benetan naizena jotzen... ikusten duk ezin zaizkiola mirariak eskatu, Bruno. Bero zagok hemen barruan, gozema.

Kalera jarraitu diot, hara-hona ibili gara metro batzuetan harik eta kalekka batean katu txuri bat babes bila agertu zaigun arte eta Johnny luzaroan geratu da hura laztantzen. Tira, aski da; Saint-Michel plazan taxi bat aurkituko dut Johnny hotelera eramateko eta ni etxera joateko. Azken batean ez da hain izugarria izan; une batez beldur izan dut ez ote zuen Johnnyk liburuaren anti teoria moduko bat egina, eta ez ote zuen nirekin probatuko hor barrena barra-barra askatu aurretik. Johnny gizajoa katu txuri bat laztantzen. Inork inortaz ezer ez dakiela da funtsean esan duen gauza bakarra. Biografia orok hori jakintzat ematen du eta aurrera jarraitzen du, zer arraio. Goazemak, Johnny, goazemak etxera, berandu duk eta.

—Ez uste hori bakarrik denik —dio Johnnyk, kolpetik tentetuz, pentsatzen ari naizena jakingo balu bezala—. Jainkoa zagok, maitea. Hor, bai, ez duk bat bera asmatu.

—Goazemak, Johnny, goazemak etxera, berandu duk eta.

—Hik eta nire kide Bruno bezalakoak direnek Jainkoa deitzen dioten hori zagok. Hortzetako pastaren hodia goizetan, horri Jainkoa deitzen ziotek. Zakarrontzia, horri Jainkoa deitzen ziotek. Lehertzeko beldurra, horri Jainkoa deitzen ziotek. Eta lotsagabeki nahasi naik zikinkeria horrekin, idatzi duk ezen nire haurtzaroa, eta nire familia, eta ez dakit zer arbasoen herentzia... Arrautza ustel pila eta hi erdian karaka, hire Jainkoarekin oso pozik. Ez diat hire Jainkoa nahi, ez duk sekula nirea izan.

—Esan dudan gauza bakarra duk musika beltza...

—Ez diat hire Jainkoa nahi —errepikatzen du Johnnyk—. Zergatik onarrarazi didak Hura heure liburuan? Nik ez zakiat Jainkorik ba ote dagoenik, nik neure musika jotzen diat, nik neuk egiten diat neure Jainkoa, ez diat hire asmakizunen beharrik, utziezazkiok Mahalia Jacksoni eta Aita Santuari, eta oraintxe bertan aterako duk parte hori hire liburutik.

—Tematzen bahaiz —esaten dut zerbait esateagatik—. Bigarren edizioan.

—Katu hau bezain bakarrik nagok, eta askoz bakarrikago nik badakidalako eta berak ez. Alua, eskuan ezartzen zizkidak azazkalak. Bruno, jazza ez duk musika bakarrik, ni ez nauk Johnny Carter bakarrik.

—Hain zuzen ere horixe esan nahi nian idatzi nuenean jotzen duala batzuetan...

—Ipurdian euria egingo balit bezala —esaten du Johnnyk, eta hau da lehenengo aldia gau honetan sumitzen sumatzen dudana—. Ezin da ezer esan, berehala itzultzen duk hire hizkuntza zikinera. Baldin eta jotzen dudanean hik aingearuak ikusten badituk, ez duk nire errua. Baldin eta besteek ahoa irekitzen baditek eta perfekzioa iritsi dudala esaten baditek, ez duk nire errua. Eta hau duk okerreana, hire liburuan esatea benetan ahaztu zaiana, Bruno, eta duk ezen nik ez dudala ezer balio, ezen jotzen dudanak eta jendeak txalotzen didanak ez duela ezer balio, ez dik berez ezer balio.

Apaltasun bitxia, izan ere, gaueko ordu hauetan. A zer Johnny...

—Nola esplika diezazuket? —oihukatzen du Johnnyk, eskuak nire sorbaldetan jarriz, ni eskuin-ezker astinduz. (*La paix!*, garrasi egiten dute leiho batetik)—. Ez duk musika gehiagoko edo gutxiagoko kontua, beste gauza bat duk... esate baterako, Bee hilik egotearen eta bizirik egotearen arteko aldea duk. Nik jotzen dudana Bee hila duk, eta nik nahi dudana, aitzitik, nik nahi dudana... Eta horregatik zapaltzen diat batzuetan saxoa eta jendeak uste dik edarian eskua joan zaidala. Egia duk, hala ere, beti mozkortuta egoten naizela hori egiten dudanean, zeren eta azken finean saxo batek dirutza balio baitu.

—Goazemak hemendik. Taxian eramango haut hotelera.

—Izugarri ona haiz, Bruno —trufa egiten dit Johnnyk—. Batek esaten dion guztia idazten dik Bruno kideak bere libretan, gauza garrantzitsuak izan ezik. Sekula ez nian uste hainbeste erratuko hukeenik, harik eta Artek liburua eman zidan arte. Beste norbaitez berbetan ari hintzela iruditu zitzaidan hasieran, Ronniez edo Marcelz, eta gero Johnny hemendik eta Johnny handik, hau da, nitaz ari hintzen eta nik galdetzen nioan neure buruari, baina ni ote naiz hau?, eta nitaz behin eta berriz Baltimoren, eta *Birdland*, eta nire estiloa... Aizak —gaineratzen du ia hotz—, kontua ez duk ez naizela jabetu publikoarentzako liburu bat idatzi duanik. Oso ondo zagok eta jotzeko eta jazza sentitzeko nire moduaz esaten duan guztia zeharo O.K. iruditzen zaidak. Zertarako segituko diagu liburuaz eztabaidan? Zabor bat Senan, kai ondoan flotatzen

dagoen lasto hori, hire liburua. Eta ni beste lasto hori, eta hi hor zehar burua kulunkan pasatzen ari den botila hori. Bruno, ni hil egingo nauk aurkitu gabe... gabe...

Besazpitik eusten diot, kaiko pretilean bermatzen dut Johnny. Betiko eldarnioan hondoratzen ari da, hitz puskak marmartzen ditu, tu egiten du.

—Aurkitu gabe —errepikatzen du—. Aurkitu gabe...

—Zer aurkitu nahi huen, anaia? —esaten diot—. Ez duk ezinezkorik eskatu behar, hik aurkitu duana aski izango hukek zerarako...

—Hiretzat, bazakiat —esaten du herraz Johnnyk—. Artentzat, Dédérentzat, Lanentzat... Ez dakik nola... Bai, hasi duk atea batzuetan irekitzen ... Begira bi lastoei, elkar aurkitu ditek, dantzan ari dituk bata bestearen aurrean... Polita duk, e... Irekitzen hasi duk... denbora... esan diat, iruditzen zaidak, ezen denboraren zera hori... Bruno, bizi osoan bilatu izan diat neure musikan ate hori ireki zedila azkenean. Deus gutxi, zirrikitu bat... Gogoan diat New Yorke, gau batez... Soineko gorri bat. Bai, gorria, eta zoragarri geratzen zitzaioan. Tira, gau batez Milesekin eta Halekin geundean... ordubete generamaan, nik uste, zera berari ekin eta ekin, bakarrik, pozaren pozez... Milesek hain gauza ederra jo zian, non ia aulkitik bota baininduen, eta orduan hanka egin nian, begiak itxi nitian, hegan ari ninduan. Bruno, zin dagiat hegan ari nintzela... Leku urrun-urrun batetik baina neure baitan, neure ondoan, norbait zutik balego bezala entzuten nian neure burua... Ez zehatz-mehatz norbait... Begiraiok botilari, sinestezina duk nola kulunkatzen duen burua... Ez zuan norbait, konparazioak bilatzen ditik batek... Segurtasuna zuan, topaketa, amets batzuetan bezala, ez al zaik iruditzen?, dena konponduta dagoenean, zain dauzkak Lan eta neskak indioilarra labean daukatela, ez duk autoan semaforo gorririk harrapatzen, billar-bola bat bezain ezti zihoak dena. Eta nire ondoan zegoena ni neu bezalakoa zuan baina ezein lekuri okupatu gabe, New Yorke egon gabe, eta batez ere denborarik gabe, geroko zerarik gabe... gerorik balego gabe... Tarte batez ez zuan beti baizik egon... Eta nik ez nekian gezurra zenik, gertatzen ari zela musikan galduta nengoelako, eta jotzen amaituko nuen orduko, zeren eta azken finean noizbait utzi beharko nioan

Hal gaixoari pianoan bere gogoak astintzen, une hartan bertan buruz eroriko nintzela ni neugan...

Goxo-goxo ari da negarrez, bere esku zikinekin igurzten ditu begiak. Nik ez dakit jadanik zer egin, hain berandu da, ibaitik hezetasuna igotzen da, hoztu egingo gara biok.

—Urik gabe igeri egin nahi izan dudala iruditzen zaidak —murmurikatzen du Johnnyk—. Iruditzen zaidak Lanen soineko gorria eduki nahi izan dudala baina Lan gabe. Eta Bee hilda zagok, Bruno. Uste diat hik arrazoi duala, hire liburuoa oso ondo dagoela...

—Tira, Johnny, ez diat liburuari txarretik aurkitzen dioanagatik mintzeko asmorik.

—Ez duk hori, hire liburuoa ondo zagok... urnarik ez daukalako, Bruno. Satchmok jotzen duena bezalako duk, guttiz garbia, guttiz aratza. Hiri ez al zaik iruditzen Satchmok jotzen duena urtebetetze bat edo ekintza on bat bezalako dela? Guk... Esaten diat urik gabe igerian egin nahi izan dudala. Iruditu zitzaidaan... baina tentela behar duk izan... iruditu zitzaidaan egunen batean beste zerbait aukituko nuela. Ez nengoan gogo beterik, pentsatzen nian ezen gauza onak, Lanen soineko gorria, eta baita Bee ere, sagu-tranpak bezalakoak zirela, ez zakiat esplikatu nahi dudana beste era batera esplikatzen... Norbera konformatzeko tranpak, zera, norberak dena ondo dagoela esateko. Bruno, uste diat Lan eta jazza, bai, jazza ere bai, aldizkari bateko iragarkiak bezalakoak zirela, gauza politak ni konforme geratzeko, hi geratzen haizen bezala Paris, hire emaztea eta hire lana dauzkaalako... Nik neure saxoa neukaan... eta nire sexua, liburuak dioen bezala. Behar zen gutzia. Tranpak, maitea... zeren ezinezkoa izan behar baitu beste ezer ez egoteak, ezinezkoa izan behar baitu gu hain hurbil egoteak, atearen hain beste aldean...

—Norberak bere baitatik dena ematea duk axola duen bakarra —diot, ezinago mozoloa naizela sentituz.

—Eta urtero *Down Beate*ko erreferenduma irabaztea —baiesten du Johnnyk— Bai noski, bai noski, bai noski. Bai noski.

Plazara eramaten dut astiro-astiro. Zorionez, taxi bat dago izkinan.

—Batez ere ez diat hire Jainkoa onartzen —marmar egiten du Johnnyk—. Ez niri horrekin etorri, ez diat baimena emango. Eta baldin eta benetan atearen beste aldean badago, zer demontre axola dit niri. Atea berak ireki duelako beste aldera pasatzeak ez dik batere merezimendurik. Atea ostikoka bota, hori bai. Ukabilkadaka hautsi, atearen kontra eiakulatu, atearen kontra egun oso batez pixa egin. Egund hartan New Yorken nik uste diat atea ireki nuela nire musikarekin, harik eta gelditu egin behar izan nuen arte eta orduan aurpegian itxi zidaan madarikatuak atea, zergatik eta sekula ez diodalako otoitz egin, sekula ez diodalako otoitz egingo, ez dudalako ezer jakin nahi libreadun atezain horrekin, eskupeko baten trukeko ate irekitzaile horrekin, horrekin...

Johnny gizajoa, kexatu egingo da gero batek ez dituelako gauza horiek liburu batean jartzen. Goizaldeko hirurak, amatxo maitea.

Tica New Yorkera itzuli zen, Johnny New Yorkera itzuli zen (Dédée gabe, orain oso ondo instalatuta Louis Perronen etxean, zeinak etorkizun handia baitu tronboi-jotzaile gisa). Baby Lennox New Yorkera itzuli zen. Denboraldia ez zen gauza handia Parisen eta nik faltan botatzen nituen neure adiskideak. Johnnyri buruzko nire liburu oso ondo saltzen ari zen nonahi, eta jakina Sammy Pretzal hizketan zebilen jadanik Hollywoodeko egokitzapen posible batez, beti interesgarria den gauza libera-dolarra erlazioa kalkulaten denean. Nire emazteak suminduta jarraitzen zuen Baby Lennoxekin nik izandako kontuagatik, nahiz ez zen larritasun handikoa izan bestalde, azken batean Baby nabarmenkiro promiskuoa da eta edozein emakume bizkorrek ulertu behar luke gauza horiek ez dutela senar-emazteen arteko oreka arriskuan jartzen, kontuan hartu gabe Baby itzuli egin zela jadanik Johnnyrekin New Yorkera, Johnnyrekin ontzi berean joateko atsegina eman zion azkenean bere buruari. Johnnyrekin marihuana erretzen ariko zen jadanik, bera bezala galduta, neskatxa gajoa. Eta *Amorous* Parisen atera berria zen, nire liburuaren bigarren edizioa inprimatzen ari zenean hain zuzen eta hura alemanera itzuliko zela aipatzen zenean. Nik asko pentsatua nuen bigarren edizioko aldaketetan. Ondradua lanbideak

uzten didan neurrian, galdetzen nion neure buruari ea ez ote zen beharrezkoa izango nire biografiatuaren nortasuna beste argi baten pean erakustea. Hainbat aldiz eztabaidatu genuen Delaunayrekin eta Hodeirekin, haiiek ez zekiten berez niri zer aholkatu liburua bikaina zela eta jendeari horrela gustatzen zitzaiola iruditzen zitzaielako. Sumatu uste izan nuen ezen biok kutsadura literario baten beldur zirela, ezen beldur zirela nik azkenean ez ote nuen obra zipriztinduko Johnnyren musikarekin batere zerikusirik edo zerikusi gutxi duten ñabardurekin —Johnnyren musika guk guztiok ulertzen genuen moduan, behinik behin—. Iruditu zitzaidan jende adituen iritziak (eta nire iritzi pertsonalak, ergela litzateke orain-orain hori ukatzea) bigarren edizioa zegoen zegoenean uztea justifikatzen zuela. Estatu Batuetako aldizkari espezializatuak zehatz-mehatz irakurtzeak (lau erreportaje Johnnyri, beste suizidio saio bati buruzko albisteak, oraingoan iodo-tinturarekin, zunda gastrikoa eta hiru aste ospitalean, berriz ere Baltimoren jotzen ezer gertatu ez balitz bezala) aise lasaitu ninduen, berriz gaixotze penagarri horiek eragiten zidaten pena alde batera utzita. Johnnyk ez zuen hitz konprometigarri bakar bat esan liburuaz. (*Stomping Arounden*, Chicagoko aldizkari musikal batean, Teddy Rogersek Johnny elkarrizketatzen du): “Irakurri duzu Bruno V...k Parisen zutaz idatzi duena?” —“Bai. Oso ondo dago”. “Ez duzu zer esanik liburu horretaz?” —“Ezer ez, oso ondo dagoela ez bada. Bruno oso mutil jatorra da”. Jakiteke geratzen zen Johnnyk zer esan zezakeen mozkortuta edo drogatuta ibiliko zenean, baina gutxienez ez zegoen bere aldetikako ezein gezurtatzeren zurrumurrurik. Liburuaren bigarren edizioa ez ukitzea erabaki nuen, Johnny funtsean zen bezalaxe aurkezten jarraitzea: adimen kaskar samarreko gizagaixo bat, hainbat musikari, hainbat xake-jokalari eta hainbat poeta bezala gauza zoragarriak sortzeko dohainaz hornitua, bere obraren dimentsioen inolako kontzientziarik eduki gabe (indartsua dela badakien boxeolariaren harrotasuna, asko jota). Johnnyren erretratu hori bere horretan gordetzera hartaratzen ninduen denak; kontua ez zen katramilatan hastea jazz asko baina analisi musikal edo psikologikotik deus nahi ez duen publiko batekin, deus ez berehalako eta ondo ebakitako pozbidea ez bada, erritmoa markatzen duten eskuak, beatifikoki lasaitzen



diren aurpegiak, azalean zehar paseatzen den musika, odolari eta arnasari eransten zaiona, eta gero aski, arrazoi sakonik batere ez.

Hasieran telegramak iritsi ziren (Delaunayri, niri, arratsaldean egunkarietan ateratzen ziren jadanik iruzkin ergelekin); handik hogeitaz egunera Baby Lennoxen gutuna izan nuen, ez baitzen nitaz ahantzi. “Bellevuen primeran tratatu zuten eta ni bila joan nintzaion irten zenean. Mike Russoloren apartamentuan bizi ginen, hura biran baitabil Norvegian. Johnny oso ondo zegoen, eta jendaurrean jo nahi ez bazuen ere, onartu zuen Club 28ko mutilekin diskoak grabatzea. Zuri esan diezazuket, berez oso ahula zegoen (imajinatzen dut zer esan nahiko zuen Babyk horrekin, Parisko gure abenturaren ondoren) eta gauez beldurra ematen zidan arnasa hartzeko eta kexatzeko hark zuen moduak. Kontsolatzen nauen gauza bakarra —eransten zuen zoragarriro Babyk— pozik eta jakin gabe hil zela da. Telebista ikusten ari zen eta kolpetik lurrera erori zen. Bat-batekoa izan zela esan zidaten”. Nondik ondorioztatzen baitzen Baby ez zela presente egon, eta hala zen, zeren eta gero jakin baikenuen Johnny Ticaren etxean bizi zela eta bost egun pasatu zituela berarekin, kezkatuta eta abailduta, jazza uzteaz, Mexikora joateaz eta landaldean lan egiteaz hitz eginez (joera hori izaten dute denek beren bizitzako uneren batean, ia aspergarria da), eta Tica zelatan zeukala eta ahaleginak egiten zituela Johnny lasaitzeko eta etorkizunean pentsatzera hura behartzeko (gero esan zuen Ticak hori, berak edo Johnnyk etorkizunaren ideiarik ttipiena sekula izan balute bezala). Johnnyri grazia handia egiten zion telesaio baten erdian, eztulka hasi zen, kolpetik zakar tolestu zen, etab. Ez nago hain ziur ezen heriotza bat-batekoa izan zenik, Ticak poliziari adierazi zion bezala (bera sartuta zegoen nahaspila itzel hartatik irteteko ahaleginak eginez, bere apartamentuan hil baitzen Johnny, marihuana eskura baitzegoen, Tica gajoak istilu batzuk izan baitzituen alde zurretik eta autopsiaren emaitza ez baitzen guztiz sinesgarria. Imajina dezake norberak mediku batek Johnnyren giblean eta biriketean aurki zezakeen guztia). “Ez ezazu jakin nahi zer-nolako oinazea eragin zidan haren heriotzak, beste gauza batzuk kontatu diezazkizukedan arren —eransten zuen eztiro Baby maite horrek—, baina noizbait adore gehiago izango dudanean idatzi egingo dizut edo kontatu egingo dizut (badirudi Rogersek Pariserako eta

Berlinerako kontratatu egin nahi nauela) zuk jakin beharra daukazun guztia, zu Johnnyren adiskiderik onena zinenez”. Eta Tica iraintzeari eskainitako orrialde oso baten ondoren, non Babyri sinetsiz gero Tica izango baitzen ez bakarrik Johnnyren heriotzaren eragilea, baita Pearl Harboreko erasoarena eta Izurri Beltzarena, honela bukatzen zuen Baby gajo horrek: “Ahaztu baino lehen, behin Bellevuen asko galdetu zuen zutaz, nahasi egiten zitzaizkion ideiak eta pentsatzen zuen zu New Yorken zeundela eta ez zenuela bera ikustera joan nahi, gauzez betetako zelai batzuez hitz egiten zuen beti, eta gero deitu egiten zizun eta hitz gordinak ere esaten zizkizun, gaixoak. Badakizu sukarra zer den. Ticak Bob Careyri esan zionez, honelakoxe zerbait izan ziren Johnnyren azken hitzak: “O, egidak maskara bat”, baina imajina dezakezunez une horretan...” Horixe imajinatzen nuela. “Zeharo gizenduta zegoen”, eransten zuen Babyk bere gutunaren amaieran, “eta hasperenka ibiltzen zen oinez”. Horiek ziren Baby Lennox bezalako pertsona delikatu batengandik espero zitezkeen zertzeladak.

Hori guztia nire liburuaren bigarren edizioaren agerraldiarekin batera gertatu zen, baina zorionez astia izan nuen ziztu bizian idatzitako ohar nekrologiko bat eta jazzmen ospetsu asko agertzen dituen ehorzketaren argazki bat erantsi ahal izateko. Era horretara osatua gelditu zen, nolabait esateko, biografia. Beharbada ez da ondo egongo nik hori esatea, baina normala denez plano soil-soilik estetiko batean kokatzen dut neure burua. Beste itzulpen bat aipatzen ari dira, suedierara edo norvegierara uste dut. Albistearekin zoratzen daukat emaztea.

ITZULPENA: JON MUÑOZ





2019ko abenduaren 23an egina





zaldiarri·10